
**Euskaltzaindiaren
Oroitidazkia
2002**



**Memoria
2002
Real Academia de la Lengua Vasca
Euskaltzaindia**



**Mémoire
2002
Académie de la Langue Basque
Euskaltzaindia**





Euskaltzaindiaren
Oroitidazkia

2002

Bilbo, 2003

Testu-idazketa: Jose Luis Lizundia, Pello Telleria, Itziar Rekalde, Amaia Okariz
Testu gainbegiratzea: Xabier Kintana

© Euskaltzaindia
Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
E-mail: info@euskaltzaindia.net
Webgunea: www.euskaltzaindia.net

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.
Ekaingo Kobak, 3, 1º. 48005 Bilbo

Inprimategia: A. G. Rontegui, S.A.L.
Erandioko Erribera, 4. 48950 Erandio (Bizkaia)

Legezko Gordailua: BI-2301-03

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
I. Erakundearen jarduerak	9
I.1. Akademiaren jarduerak	11
I.2. Kanpoko jarduerak	19
I.3. Euskaltzaindia erakundeetan	21
I.4. Omenaldiak	23
I.5. Izendapenak eta ordezkapenak	25
II. Akademia-jarduera	29
II.1. Hiztegi-gintza	33
<i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> (OEH)	33
Hiztegi Batua	37
II.2. Gramatika	41
II.3. Dialektologia (Euskararen Herri Hizkeren Atlas)	43
II.4. Onomastika	49
II.5. Literatura	53
Herri Literatura	53
Literatura Ikerketa	55
Sariketak	57
II.6. Euskara Batua	61
II.7. Jagon saila	63
Corpus alorreko lanak	63
Sustapen alorreko lanak	65
III. Erakunde zerbitzuak	67
III.1. Egoitza eta ordezkariak	69
III.2. Azkue Biblioteka	77
III.3. Argitalpenak	83
IV. Aurrekontuak	89
IV.1. Balantzea	91

V. Herri Administrazio eta erakundeekikoak	93
V.1. Eusko Jaurlaritza eta hiru diputazioak	95
V.2. Nafarroako Gobernua	98
V.3. Estatu Administrazioa	99
V.4. Iparraldeko Herri Aginteak	99
V.5. Udalak	100
V.6. Unibertsitateak	101
V.7. Baionako Iker Taldea	102
V.8. EROSKI	102
V.9. Euskaltel	103
VI. Euskaltzaindiaren organigrama	305
VI.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak	307
VI.2. Batzordeen zerrenda	309
VI.3. Euskaltzaindiaren organigrama	313
VI.4. Helbideak	317

Aurkezpena

2002. urtean Euskaltzaindiak, legeak aitortzen eta onartzen dizkion egitekoen esparruan egindako lan-jardueren berri eskaini nahi duen oroitidazki honen sarrera egitean, atzera so egin eta nolabaiteko nostalgia gazi-gozoa datorkiguke burura. Izan ere, ohiko lan eta ikerketa lanez gainera (Euskara Batua, Dialektologia, Onomastika, Jagon, Gramatika edo Literatura Saitetako ikerlan eta erabakiak), pixkanaka baina etengabe gure hizkuntzaren barne-normalizazioa ezartzen dutenak, bestelako zereginak ere izan ditu Akademiak.

Alde batetik, hainbeste urtetan euskaltzainburu izandako Luis Villasante Kortabitarte euskaltzainaren heriotzak gure artean hutsik utzirik tokia betetzeko, Andolin Eguzkitza hizkuntzalari, idazle, itzultzaile eta Unibertsitateko irakaslea hautatu zen 2001eko martxoan. Euskaltzaindiak kasu hauetarako arautua daukan prozedurari segituz, euskaltzain sartu berriak bere sarrera-hitzaldia egin behar zuen eta horretarako, 2002ko otsailaren 23an, Euskaltzaindiak bere ageriko bilkura Santurtzin egitea erabaki zuen, Eguzkitza jaunaren sorterrian. Bilbotik hara Euskal Herria izeneko ontzian abiatu zen Ibaizabaletik zehar Akademia, porturatzean, ongietorria emateko, musika eta dantza artean, herriko alkatea eta udal talde politiko-etako ordezkariak, Eusko Jaurlaritzako agintariak eta Enkarterriko lehenbiziako euskaltzaina adi izanik, herriko eta inguruetakoko jende ugariarekin batera.

Ospakizuna, jendaurreko bilkura irekian, Santurtziko Udaletxeko areto nagusian egin zen, ohiko aurkezpen, hitzaldi eta erantzunekin. Urtea hasteko, ekitaldi polita eta sinbolikoa, euskara aspaldian galdua zen tokian ere, behinola ebakiriko iratze zaharretik landare txerto berriak badatozela erakusteko.

Baina poz arteko jarduera honek laster ekarri zigun bere kontrapuntua ere: Euskaltzaindiaren egoera ekonomiko larria. Izan ere, Nafarroako Gobernuak, iaz arte indarrean egon den finantziazio-hitzarmena, –hiru foru diputazioen eta gobernu autonomikoaren eta foralaren artean onartu eta sinatua– salatu eta bertan behera utzi zuenean, burokrazia arazoengatik, Euskaltzaindian ekonomi arazoak elkarren ondoan agertzen hasi dira, domino-jokoan bezala, zorrak metatuz eta gure langileen soldatak ezin ordaintzeraino ere helduz. Horrek buruko min ez gutxi eta denbora galtze izugarriak ekarri dizkio gure instituzioari, gure egiteko nagusi iraunkorrak diren araugintza-zereginen kaltean. Maiz azpimarratu den bezala, oraingo larrialdi honek argitan utzi du, zoritxarrez, Euskaltzaindiaren egiazko egoera eta izaera: erakunde politiko guztiek de iure aitortzen dioten onespena ez dela automatismoz de facto mamitzen, konponbideak bilatzeko orduan era guztietako atzerapen eta ezusteko oztupoak non-nahi agertzen baitira.

Egoera larri horretatik irteteko, testua prestatu eta adosteko hainbat bileraren ondoan, bai Nafarroako Gobernuarekin eta bai Euskal Autonomia

Erkidegoko hiru foru-diputazioekin eta Eusko Jaurlaritzarekin ere hitzarmen berri bana sinatu ziren. Biziki eskertzekoa da, bereziki, irailaren 5ean Euskaltzaindiak J.J. Ibarretxe lehendakariarekin izandako elkarrizketa argigarriaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzatik jasoriko laguntza, Akademiari, zegoen putzu itogarritik burua atera eta arnasa hartzen utzi diona.

Gainera, Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak sinaturiko hitzarmenari esker, Legebiltzarreko liburutegian gordetzen diren euskarazko 360 liburu bereziren kopia digitalizatuak jaso ditu Akademiak Azkue Bibliotekarako. Horrela, gure artxibo eta liburutegi hau euskalari eta euskaltzale ororentzat ikerketa-leku aberatsago bihurtu da, orain arte bezala euskalgintzaren mesedetan

Euskaltzaindiak, bestalde, Galiziako eta Kataluniako hizkuntz Akademiekin beti izan dituen harreman onak landuz, bata eta bestea bisitatu nahi izan ditu. Real Academia Galega martxoaren 8an, bertako burua izandako Francisco Fernández del Riego jaunaren omenaldian, hain zuzen. Azaroaren 20-21etan, aldiz, Bartzelonan izan zen, Institut d'Estudis Catalans-ek antolaturiko Onomastika Jardunaldietan. Bietan erakunde horien buruak agurtu eta beroriekin mintzatzeko aukera izan genuen, asmo, proiektu eta arazo amankomunak –finantziazioa barne– ukituz.

Euskaltzaindiak egindako bilera berezien artean bi dira, aipatzekoak:

Alde batetik Sustapen batzordeak Hendaiako Udaletxean irailaren 27an egindako VI. Jagon Jardunaldiak, "Eliza eta euskara" gaiaren inguruan. Bertan, Euskaltzainburuaren agurraren eta sailburuaren aurkezpenaren ondoren, Iparraldeko ikertzaile eta euskaltzain batzuek Elizak gure hizkuntzari buruz garai ezberdinetan izandako jarrera eta konpromisoa azaldu zituzten beren argi-ilunetan. Jendetza handia bildu zen han entzule, gai horrek Iparraldean sortzen duen interesaren lekuko.

Azaroaren 28-29etan, Euskaltzaindiak Herri Literaturari buruzko VII. Jardunaldiak antolatu zituen Eibarren, Juan Antonio Mogelen Peru Abarkaren bigarren mendeurrenean. Hor, bai Euskal Herriko eta bai Espainiako berezilariek esku hartu zuten, herriko literatur emaitzak ikuspegi askotatik aztertzeko.

Goragoko gai larriari berriro deusodala, iazko urteak mahai gainean jarri du Euskaltzaindiak, Euskararen Akademiak, finantziabidean daukan ahultasuna. Horrek, noski, geure egoeraz gogoeta egin eta irtenbideak bilatzera bultzatu gaitu, gobernu- eta administrazio-erakundeekin bestelako harremanak eta loturak ezarri eta akordio egokiagoak egiteko. Euskaltzaindiak, bere baitan, bere egitura eta lan egiteko modua oraingo garaietara birmoldatzeko premia ikusi du, eta gertu dago bere barruan behar diren aldaketak aurrera eramateko, bere lana Euskal Herriaren gaurko beharrianak asetzeko ahalik eta hobekien prestatuz. Erakundeek, bestetik, garbi ikusi behar dute Euskal Herriko Hizkuntza Nazionalaren Akademia ezin daitekeela eskeko gisa trata, herrixka bateko eta maila apaleko elkarte lokal bat balitz bezala. Duintasunez lan egiteko, oraingo itolarritik behingoz atera eta iraupena seguratu behar zaio Euskaltzaindiari, aldi berean bere lanetan, ohi bezala, emaitza zehatzak eskatuz. Horretarako, norik bere erantzukizunaren arabera, behar diren pausoak egin beharra dauka.

Xabier Kintana,
idazkaria

I. Erakundearen jarduerak

I. ERAKUNDEAREN JARDUERAK

I.1. AKADEMIAREN JARDUERAK

Idazkari berria izendatu

Orain arte idazkaria izan den Patxi Goenagak dimisio-gutuna aurkeztu behar izan du urtarrileko osoko bilkuran, Gobernu Legea betez Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde izendatua izan delako. Otsailaren 22ko osoko bilkuran, Xabier Kintana Urriaga euskaltzaina aukeratu da idazkaria izateko.

Andolin Eguzkitzaren sarrera-ekitaldia

2002ko otsailaren 23an, Bilbotik Santurtzira itsasadarrean zehar heldu dira euskaltzainak *Euskal Herria* izeneko ontzian. Santurtziko kaian, dantzarien uztaien eta arraunlarien arraunen azpitik pasatu ondoren, herriko haurrek zapi bana eman diete euskaltzainei. Dantzariak aureskua dantzatu ondoren, herriko Alkateak, Santurtziko alderdi politikoetako bozeramaleek, Eusko Jaurlaritzako Miren Azkarate Kultura sailburuak eta Sabin Intxaurreaga Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak eta Andolin Eguzkitzak hartu dituzte euskaltzainak.



Santurtziko portuan, 2002-II-23an, Andolin Eguzkitzaren sarrera-ekitaldi egunean: euskaltzainak Bilbotik Santurtzira itsasontziz heltzen.

Santurtziko Udaletxean bildu da Euskaltzaindia, Andolin Eguzkitza Bilbao euskaltzainaren sarrera ospatzeko. Euskaltzain osoez gain, Jose Antonio Retolaza euskaltzain ohorezkoa eta zenbait urgazle izan dira.

Mahaiburuan eseri dira, Javier Cruz, herriko alkatea; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua eta Xabier Kintana, idazkaria. Ondoko aulkietan, Sabin Intxaurrea, Hirigintza eta Lurralde Antolamendu eta Ingurugiro sailburua; Ramon Vega, PSEko zinegotzia; Jose Miguel Jerez, EAJkoa; Mikel Gotzon Bereziartua, EAKoa; Felix Velasco, PPkoa eta Gorka Galdeano, Batasunakoa.

Batzar aretoan aurkitzen dira, orobat, Euskaltzaindiko langile, Andolin Eguzkitzaren familiako, adiskide, unibertsitateko irakasle kide eta santurtziar andana bat. Udal aretoa gainezka zegoelako, jende aldra batek elizpetik, pantaila baten bidez, jarraitu behar izan du ospakizuna.



Santurtziko Udaletxean, 2002-II-23an, Andolin Eguzkitzaren sarrera-ekitaldian; ezkerretik eskuinera: Henrike Knörr, Andolin Eguzkitza, Xabier Kintana, Jean Haritschelhar, Javier Cruz eta Miren Azkarate.

Javier Cruz alkateak ongi etorria eman dio Euskaltzaindiari, hitzaldi labur bat eginez. Idazkari akademikoak Barne Erregeletako 57.8. eta 57.9. atalak irakurri ditu, zeinetan adierazten baita harrera batzarraren prozedura. Ondoren, euskaltzain berriaren bila, Andres Iñigo, azkenengoz izendaturiko euskaltzaina eta, haren aurkezleatariko bat, hots, Juan San Martin joan dira eta batzar gelara ekarri.

Jarraian, Andolin Eguzkitza euskaltzainak bere sarrera hitzaldia egin du. *Xalotasunaren laudorioa* deritzon mintzaldiak hiru zati ditu: 1) Santurtziko herriari ohore: Andolin Eguzkitzak jaioterria eta bertako jendea aipatzen ditu eta izendapena, bere aurrekoek eta Santurtziko euskaltzaleek egindako lanaren ondorio bezala hartzen du. 2) Luis Villasante Kortabitarteri gorazarre: zati honetan Luis Villasante fraide frantziskotarraren bizitza laburbildu eta gero, haren obra idatziaren lerro biak hartuta, euskara eta teologia, XX.

mendeko idazleen artean garatu duen prosagatik dela aipagarri adierazten du. Azkenean, haren nortasunari helduz, aita Villasanteren ezaugarri nagusiak aipatu ditu eta horien artean xalotasuna goratu. 3) Azkenez, Villasanteren nortasunetik abiatuz alde batetik, eta gure gizartean nagusi diren modu harroak eta gaiztoak kontuan harturik, bestetik, Peter Wust filosofo alemanaren liburu batean oinarri eginda [Xalotasuna eta errukia], balore bi horiek goraiatu ditu bizitzaren zuzentzaile nagusi bezala, eta are gure ezagutzaren hesi epistemologiko gisa.

Segidan, Xabier Kintana euskaltzainak bere erantzun hitzaldia egin du *Bilbotik Santurtzira* deitua, hain zuzen. Andolin Eguzkitzaren bizitza, ikasketak eta lanak aipatzeaz gainera, hura Enkarterriko lehen euskaltzaina dela nabarmendu du, Bizkaiko alde horretako familia euskaltzaleek aspaldidanik eta egoera txarretan egin duten lan eskergaitzaren fruitu heldu gisa.

Bukatu ondoren, denak zutik direlarik, euskaltzainburuak Andolin Eguzkitza euskaltzain aitortu du eta agiria eta ziurtagiria eman dio eta gainontzeko euskaltzainek anaitasunezko besarkada banan-banan eman diote. Jean Haritschelharrek laudoriozko hitz batzuk esan dizkio Andolin Eguzkitzari, zorionak emateaz gainera.

Pablo Pedro Astarloaren jaiotzaren 250. urteurrenean

Euskaltzaindia, Pablo Pedro Astarloa euskalaria jaio zeneko 250. urtea ospatuz Durangora joan da ekainaren ondarrean bertako Udalak eta Gerediaga Elkarteak gonbidaturik. 27an Zuzendaritza bildu da lehendabizi. 28an, hileroko osoko bilkura egin da udaletxean eta 29an, Tabirako elizan, Astarloaren sortze egunean, omenezko ospakizuna:

1. Astarloaren omenezko ekitaldia bere estatuaren aurrean.
2. Tabirako San Pedro elizan 5 diozesitako apaizek meza kontzelebratua.
3. Ekitaldi akademikoa Pablo Pedro Astarloaren omenez, elizan bertan:



Durangoko Udaletxean, 2002-VI-28an; ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, Xabier Kintana eta Pilar Ardanza.

- Pilar Ardanza alkatesa, Miren Azkarate Kultura sailburua eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren agurrak.

- Itziar Laka, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslearen txostena: "Astarloa eta hizkuntza".
 - Ricardo Gómez, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslearen txostena: "Astarloaren ekarpena euskal gramatikaren ikerketetan".
4. Valentin Zubiaurreren *Cantata Astarloa* musika lana, Durangaldeko abesbatzen eskutik, Durangoko Andra Maria Uribarriko elizan.

Arantzazuko ospakizunak

Euskaltzaindiak uztailleko osoko bilkura Oñatiko Arantzazun egin du, hilaren 18an eta 19an. Frantziskotarrak Arantzazun daudela 500 urte bete direla eta, mendeurren horretan parte hartu nahi izan du Akademiak, Euskaltzaindiak Frantziskotarrekin –eta bereziki Arantzazurekin– izan duen harremana gogoratuz eta eskertuz.



Arantzazuko Gogartetxean, 2002-VII-18an, Frantziskotarren omenezko ageriko ekitaldian; ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar eta Telesforo Zuriarrain.

Uztailaren 18an, Arantzazuko Gogartetxean, ageriko ospakizuna egin du Euskaltzaindiak, Frantziskotarrak omenduz. Juan Telesforo Zuriarrain Arantzazuko guardia-noak ongi torria eman dio Euskaltzaindiari. Jose Antonio Arana Martijaren txostena eta berea, Jose Luis Lizundiak irakurri ditu, batez ere, Euskaltzaindiak Arantzazun egin dituen biltzar, jardunaldi eta bilerak aztertuz eta euskararen alde nabarmenki lan egiteagatik ezagunak diren frantziskotarrak gogoraraziz. Amaieran, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak Akademiaren zilarrezko domina eman dio komentuko nagusiar, Arantzazuko frantziskotarrek Euskaltzaindiari eman dioten laguntza eskertzearekin batera. Dominak honela dio: *Frantziskotarrei, Arantzazuko 500. urteurrenean. 2002-07-18. Euskaltzaindia.*

Euskaltzaindia Hendaian

Duela mende bat, bi urtetan (1901-1902), Hondarribian eta Hendaian egin ziren biltzar famatuak, hots, Eskualzaleen Biltzarra elkartea sortu zela ospatuz, irailaren 27an bildu da Euskaltzaindia Lapurdiko hiri horretan.

Hil horri dagokion osoko bilkura, goizez, eta VI. Jagon jardunaldiak, arratsaldean, egin ditu Euskaltzaindiak udaletxean. Jose-Louis Ecenarro auzapeza buru dela Udal korporazioak harrera ofiziala egin dio Akademiari.

Ageriko ospakizuna "Nafarroa Oinez 2002" dela eta

Urriaren 18an, goizean, Tuteran, Dekano Jauregian, Euskaltzaindiak hileko osoko bilkura egin du. Tuterako alkateak, Luis Campoy senatore jaunak, euskaltzainei bisita egin die agurtzeko; Jean Haritschelhar euskaltzainburuak erantzun dio Alkatearen agurrari eta ondoren, arratsaldean aurkeztekoa zen Yehudah ha-Levi XII. mendeko idazle tuterarraren *Haizearen*



Tuteran, Dekano Jauregian, "Nafarroa Oinez 2002" dela-eta egindako ageriko bilkuran; ezkerretik eskuinera: Andres Iñigo, Jean Haritschelhar eta Kontxi Blanco.

hegaletan liburuaren ale bat eman dio. Bisitaldi horretan bertan, aurtengo Nafarroa Oinez-en irudia –Castildetierra izenekoa– eman diote Tuterako Alkateari, Edurne Juanarenak, Argia Ikastolako Zuzendaritzakoak eta Txusma Azkonak, Argia Ikastolako zuzendariak.

Arratsaldean ageriko ospakizuna egin da honako egitarau honekin:


1. Agurrak.
2. Xabier Kintana, euskaltzaina: Yehudah ha-Levi, XII. mendeko idazle tuterarraren *Haizearen hegaletan* poesia liburuaren aurkezpena. Liburu hori hiru hizkuntza hauetan argitaratu da: hebreeraz, euskaraz eta gaztelaniaz.
3. Joxemiel Bidador, Euskal Filologian lizentziaduna eta idazlea: "Los académicos de la Ribera".
4. Peio Monteano, Soziologian lizentziaduna eta Historian doktorea: "Bajonavarros en la Tudela del siglo XVI".

Tuterako Argia Ikastolan

Urriaren 18an, euskaltzainak Tutera ondoan dagoen Fontellas herriko Argia Ikastolara joan dira, goizez osoko bilkura Tuterako Dekano Jauregian egin ondoren. Edurne Juanarenak, Argia Ikastolako Zuzendaritzakoak, *Castildetierra* izeneko irudiak eman dizkie, Euskal Herriaren lurralde ezberdinetako kide moduan: Iparraldekoa Jean Haritschelharrek jaso du, Gipuzkoari dagokiona Patxi Altunak, Nafarroarena Andres Iñigok, Arabakoa eta Bizkaikoa Jose Luis Lizundiak.

Peru Abarca-ren 2. mendeurrena Eibar eta Markinan

Azaroaren 20an, Eibarren, Juan Antonio Mogelek idatzitako *Peru Abarca* liburuaren II. mendeurrena dela eta prentsaurrekoa eskaini dute Eibarko eta Markina-Xemeingo Udalek eta Euskaltzaindiak. Euskaltzainditik Juan Mari Lekuonak eta Jabier Kaltzakortak parte hartu dute. Iñaki Arriola Eibarko alkatea eta Angel Kareaga Markina-Xemeingo alkatea egon dira.



Markina-Xemeingo Udaletxean, 2002-XII-27an, Literatura Ikerketa azpibatzordearen bilera; ezkerretik eskuinera: Gorka Aulestia, Jon Kortazar eta Iratxe Gutierrez.

Mendeurren hori ospatzeko, azaroaren 22an Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa azpibatzordea bildu da Markinako Udaletxean. Bilera hasi aurretik, Angel Kareaga alkate jaunak batzordekideak agurtu ditu. Iluntzean, Xabier Altzibar euskaltzain urgazleak, Mogezez eman du bere hitzaldia Markinako Kultura Etxean.

Azaroaren 27an, Eibarren, *Portalea* Kultura Etxean, egin da Juan Antonio Mogelen omenez, *Peru Abarca* idatzi zueneko bigarren mendeurreneko ospakizuna. Hona hemen egitaraua:

- Ongietorria, Maria Jose Telleria Etxeberria, Euskara eta Kultura arloko batzordeburuak.
- Agurra eta aurkezpena, Euskaltzainburuak.
- "*Peru Abarca*: forua eta literatura". Andres Urrutia, euskaltzaina eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea.
- "Gregorio Arrueren *Peru Abarca* liburuaren gipuzkerazko itzulpena". Jabier Kaltzakorta, Labayruko kidea eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea.


Ospakizun hauez gainera, Euskaltzaindiak bere osoko bilkura eta VII. Herri Literatura Jardunaldiak ere Eibarren egin ditu.

Federiko Belaustegigoitiaren omenez Laudion

Abenduaren 20an Federiko Belaustegigoitia laudiar euskaltzain urgazle eta euskalaria omentzeko joan da Euskaltzaindia Audio herrira. Goizeko 10etan hasita, goiz eta arratsaldez, abenduari dagokion osoko bilkura egin da udaletxean. Arratsaldean izan da Belaustegigoitiaren omenezko bilkura irekia:

- Pablo Gorostiaga alkatearen ongietorria.
- Euskaltzainburuaren agurra.
- Herriko *Andere* abesbatzaren saioak hasieran eta amaieran.
- Aurrekua.
- Federiko Belaustegigoitiaren omenezko txostena irakurri du Jose Luis Lizundiak.

- Jone eta Maitena Belaustegigoitia Ortueta andreei –Federiko Belaustegigoitiaren alabei– aitaren irudia daraman koadroa eman zaie.
- Euskaltzain ohorezko berri hauei diploma eman zaie: Juan Garmendiari, Jose Mari Larrarteri eta Ander Manterolari.



Laudioko Udaletxean, 2002-XII-20an, Federiko Belaustegigoitiaren omenezko ageriko bilkuran; ezkerretik eskuinera: Jone Belaustegigoitia, Pablo Gorostiaga, Jean Haritschelhar eta Maitena Belaustegigoitia.

Honela dio Jone eta Maitena Belaustegigoitia Ortueta ahizpei eman zaien koadroko testuak: "Laudio herriak eta Euskaltzaindiak Federiko Belaustegigoitia Landaluzeren omenez euskararen alde egindako lan eskergagatik. Jone eta Maitena Belaustegigoitia Ortueta haren alabei emana. Laudion, abendua, euskaraz 2002".

I.2. KANPOKO JARDUERAK

Juan Bautista Merino Urrutiaren omenez

Maiatzaren 23 eta 24an bi mahainguru izan dira Logroñon, Juan Bautista Merino Urrutia euskaltzain ohorezko izandakoaren omenez, hiriburu horretako "Asociación Cultural Laminiturri de Amigos de La Rioja" izeneko elkarteak antolatutako, "Instituto de Estudios Riojanos" herrialde hartako erakunde ofizialaren laguntzaz eta horren egoitzan.

Maiatzaren 24koan hauek izan dira partaideak: Henrike Knörr Borràs, Euskaltzaindiaren buruorde eta Onomastika batzordekidea; Jose Luis Lizundia Askondo, Euskaltzaindiaren idazkariorde-kudeatzaile eta Onomastika batzordekidea eta Claudio García Turza, Errioxako Unibertsitateko katedraduna eta Instituto de Estudios Riojanos-eko iker-tzailea. Moderatzaile, Jose Ignacio Gorostidi Fernandez, Laminiturri Elkarteko idazkaria.

Henrike Knörrek, *La Lengua Vasca en La Rioja* izeneko txostenaz jardun du eta Merino Urrutia jaunaren lanetik abiatuta, bost azpisail arakatu.

Jose Luis Lizundiak, bere txostenean, Merino Urrutiaren *La Lengua Vasca en La Rioja y Burgos* liburutik, programan aipaturiko Dialektologia eta Onomastika lotu ditu, men-debaldeko euskararen lagungarri izan daitezkeelako, leku-izenak herriz herri konparatuz.

Azkenik, Claudio García Turzak, Merino Urrutiaren ikerketaren balioa aztertuz, euskararen lekukotasuna eta erromantze desberdinetakoak azaldu ditu: Gaztela, Errioxa, Nafarroa eta Aragoiko, hots, inguruko erromantzeen zenbait aipamen, eta Errioxako herri hizkera desberdinak, glosak barne.

I.3. EUSKALTZAINDIA ERAKUNDEETAN

EiTBko Administrazio-kontseilua

EiTBko Kontseilurako, Euskaltzaindiaren ordezkari bezala, Jose Luis Lizundia proposatu du Zuzendaritzak. Izendapena gauzatzea Legebiltzarrari dagokio, eta hala egin du erakunde parlamentarioak, martxoaren 27an.

Terminologia Batzordea

Euskaltzaindiak, irailaren 27ko osokoen bilkuran, Andres Urrutia izendatu du Eusko Jaurlaritzako Terminologia Batzordeko kidea izateko.

Euskararen erabilerari buruzko Nafarroako Gobernuaren Dekretu berria

Urriaren 30ean, Jean Haritschelhar eta Andres Iñigo Nafarroako Euskararen Kontseiluaren bileran izan dira. Euskaltzainburuak Akademiaren irizpena mahaigaineratu du, Tuterako osokoen bilkuran aho batez onartua. Kontseiluko bozketaren emaitza honako hau izan da: 13, dekretu berriaren alde, eta 4 aurka (horien artean, bi euskaltzainenak). Hara hor botuaren azalpenaren arrazoi nagusia:

"...3.1. Proposatutako testuak (Nafarroako Gobernuaren Dekretu berria) murriztu egiten du euskarari buruzko 18/1986 Legean ezarritako oinarritzko helburuak. Izan ere, testu horren hitzaurreak hauxe aldarrikatzen du: *Nafarroa bezala beren ondarean hizkuntza bat baino gehiago edukitzeaz ondartzan diren Komunitateak, altxor hori begiratu eta babestera behartuak dira, baita hura hondatu eta galtzea eragozteaz ere. Baina ondare horren zaintzea ezin daiteke egin, ezta behar ere, hizkuntzen arteko borroka eta gatazkaren bidez; aitzitik eta Konstituzioaren 3.3. artikulua ezartzen duenari jarraiki, errespetu eta babes berezia behar duten ondarea direla aitortuz. Bestalde, foru-lege babes berezia behar duten ondarea direla aitortuz". Bestalde, foru-lege berberak, lehendabiziko artikuluan, hitzez hitz aipatzen ditu legearen beraren funtsezko helburuak. Horien artean, honako hauek aipa daitezke:*

- Herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestu eta eginkor bihurtzeko tresnak zehaztea.
- Euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea, bere erabilpena sustatzeko neurriak adieraziz.

3.2. Proposatutako testuak isildu egiten ditu 135/1994 Foru Dekretuan egindako aipamen batzuk. Aipamen horiek euskara arautzeko esparruari buruzkoak dira, eta puntu hauetan labur daitezke:

- *Euskara Nafarroako berezko hizkuntza da; areago oraindik, euskal gunean, hizkuntza ofiziala da. (Hitzaurrea)*
- *Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak, 1992ko ekainaren 25ean, Eskualdeko Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxiagotuen Europako Gutuna onetsi zuen, eta gutun horrek konbentzio-maila du. Urte bereko azaroaren 5ean, hamaika estatu kidek gutun hori sinatu zuten; horien artean, Espainiako*

estatuak. Bereziki aipatzekoak dira haren 10. artikuluan administrazio-agintariei eta herri-zerbitzuei buruz jasotako gomendioak. (Hitzaurrea)

- *Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari dagokio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Departamentuen arteko koordinazio organo gisa hartzea, hizkuntza plangintza prestatzeari dagokionez. Halaber, lankidetzan ariko da toki entitateekin eta bertzelako administrazio publikoekin, hala eskatzen badute (4. artikulua). Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko eremu mistoan, eta, zehatzago, bertako administrazioaren zerbitzu nagusietan, administrazio zirkuito elebidunak ezarriko dira, erabiltzaileak hala nahi duenean bere zerbitzuak euskaraz eman ahal izatea bermatzeko aski (12.3 artikulua).*
- Eremu mistoan, agiriak, inprimakiak, irudiak, oharrak, argitalpenak eta abarrekoak *elebitan idatzi beharko dira edo elebitako erabilerara joko da (12, 13, 14, 15 eta 16. artikulua).*"

Frantziako Gobernuari gutuna

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak gutuna idatzi dio Frantziako Errepublikako Gobernuari, hots, Nicolas Sarkozy Barne Ministroari, euskara mintzatzen den hiru probintzietan, alegia, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan, Euskararen ofizialtasuna aitortu dezan eskatuz.

Real Academia Galega-ko Presidentearen omenaldian

Martxoaren 8an, Henrike Knörr eta Juan Jose Zearreta Vigon izan dira, Real Academia Galega-k Euskaltzaindiari egindako gomitari erantzunez. Egun horretan omenaldia egin zaio orain arte Real Academia Galega-ko presidentea izan den Francisco Fernández del Riego-ri. Beste zenbaitzuen artean Euskaltzainburordea mintzatu da. Biharamunean, Xoxe Luis Barreiro presidente berriarekin elkarrizketa izan dute.

Euskaltzaindia Katalunian

Azaroaren 20an eta 21ean, Bartzelonan, Akademien arteko Onomastika Jardunaldiak direla eta, ordezkaritza bat izan da Institut d'Estudis Catalans-en egoitzan.

Batetik, Iñaki Kareaga, informatika-arduraduna, Ferran Martí Kataluniako Akademiako Informatika Zerbitzuko buruarekin bildu da, bi Akademien arazo informatikoez aritzeko. Corpus eta hiztegiak lantzeko tresnez eta webguneaz mintzatu dira.

Bestetik, Amaia Okariz, Euskaltzaindiko prentsa-arduraduna, Maria Rosa Franquesa eta Ramon Balasch, Institut d'Estudis Catalans erakundeko komunikazio zerbitzuburuarekin eta kazetariarekin bildu da. Akademiko guztien biografiez eta curriculumez aurkitegi berritua prestatzen ari dira, eta Komunikazio zerbitzuez jardun dute.

Bilera hauen ondorioz, bi erakundeon zerbitzu hauetan ere, harreman iraunkorra martxan jarri da.

Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea, bestalde, Ramon Vinaixa, I.E.C.eko kudeatzailearekin bildu da Erakunde bion diru kontuez eta Estatu Aurrekontuetan Akademiek izan duten murrizketez informazioa trukatzeko.

1.4. OMENALDIAK

"Manuel Irujo" Saria Jose Mari Satrustegiri

2002ko "Manuel Irujo" Saria Jose Mari Satrustegi euskaltzain, idazle eta antropologoari eman diote. Sari hori Lizarrako Irujo Etxea Fundazioak sortu zuen iaz, urtero euskal kulturaren alde lan bikaina egin duen pertsona bat saritzeko asmoz. Sari hori, iaz, Jose Maria Jimeno Jurío historialariari eta euskaltzain ohorezkoari eman zioten.

Larreko Saria

Fermin Irigarai "Larreko" euskal idazle auriztarraren izena daraman saria, hots, Euskal Herria Irratiak urtero eman ohi duena, 2002an, Jose Mari Satrustegiri eman zaio.

Bilboko Udalak J. A. Arana Martija omendu

Maiatzaren 17an, Bilboko "Bidebarrieta" Udal Liburutegian, omenaldia eskaini dio Bilboko Udalak Jose Antonio Arana Martija euskaltzainari. Hasieran, Bilboko Udaleko Eusebio Melerok –Gizarte Ongizate Saileko zinegotziak– zorionak eman dizkio omenduari Bilboko Udalaren izenean. Hizlariak: Henrike Knörr, euskaltzaina; Juan Antonio Zubikarai, musika-kritikoa eta Joseba Agirreazkuenaga, historialaria izan dira, eta aurkezlea Josejoa Gallastegi, Bilboko Udaleko Euskara Zerbitziburua. Amaieran, Irene Ojanguren soprano gernikarrak eta pianoan Itxaso Aranak musika saioa eskaini dute.

Ekitaldian, zenbait euskaltzain oso, urgazle eta Euskaltzaindiko langile izan dira.

"Urrezko idazluma" Juan San Martinentzat

Euskadiko Liburu Ganberak, 2002ko "Urrezko idazluma" Saria Juan San Martin euskaltzainari ematea erabaki du. Sari-ematea ekainaren 3an izan da, Bilboko XXXII. Liburu Azokan, Areatza pasealekuan.

I. 5. IZENDAPENAK ETA ORDEZKAPENAK

Sustapen batzordeko idazkari berria

Gotzon Loberak idazkari-lana egiten ezin duela jarraitu ikusirik, Bizkaiko Diputazioko Euskara Zuzendariaren karguagatik, batzordeak Andres Iñigo proposatu eta Euskaltzaindiak izendatu du otsaileko bilkuran, aurrerantzean idazkaria izan dadin.

EUSKALTZAINDIA KANPOKO JARDUERETAN

Eusko Jaurlaritzan

Lan Onaren sari-emate ekitaldian, urtarrilaren 22an, Ajuriaenean, Henrike Knörr buruordeak ordezkatu du erakundea.

Real Academia Española-ren gomita

Ibon Sarasola *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren zuzendaria, apirilaren 15etik 17ra gaztelaniaren hiztegi historikoaz Donemiliaga Kukuluan egin den jardunaldira joan da, Victor García de la Concha Real Academia Española-ren zuzendariak gure Akademiari luzatutako gomita onartuz.

Federación Española de Gremios de Editores de España

Elkarte horrek ekainaren 27an, 28an eta 29an Valentzian egin duen Biltzarraren Ohorezko Batzordeko partaide izatea eskaini dio Jean Haritschelharri eta onartu egin du euskaltzainburuak.

Euskal Herritar Unibertsala

"Euskal Herritar Unibertsala" sariko epaimahaian Henrike Knörrek ordezkatu du Euskaltzaindia.

Malerrekako euskara aztergai

Malerrekako Mankomunitateak, bertako ahozko euskara biltzeko sortu duen beka-deialdia ebazteko jarritako epaimahaikide izan dira Andres Iñigo, euskaltzain osoa eta Patxi Salaberri Zaratiegi, euskaltzain urgazlea.

Hondarribiko Udalaren eskaria

Hondarribiko euskararen azterketa egiteko deialdia zabaldu du Udalak eta aurkeztu diren lanak aztertzeko eta deialdia ebazteko jarri den epai-mahairako ordezkaria izenda dezala eskatu dio Euskaltzaindiari. Zuzendaritzak Juan Antonio Letamendia, euskaltzain urgazlea eta Atlaseko lankidea izendatu du.

Errenteriako Udala: "Koldo Mitxelena" beka

Errenteriako Udalak "Koldo Mitxelena" beka sortu du eta Euskaltzaindiari beka hori ebatziko duen epaimahairako ordezkaria eskatu dio. Zuzendaritzak, Elixabete Perez Gaztelu andrea, izendatu du.

Iruñean, Larreko saria

"Larreko" sariaren 2002. urteko bilkuran Andres Iñigo izan da, martxoaren 26an, Iruñeko 'Zaldiko Maldiko' Elkartean. Sari hau Iruñean euskararen alde nabarmentzen denari ematen zaio eta Euskalerrria Irratia Elkartek antolatzen du. Hainbat erakunderen artean, Euskaltzaindia ere epaimahaira deitua izan da, eta, Euskaltzaindiaren izenean, Andres Iñigo joan da.

Euskaltzainburua "Herri Urrats"-en

Urtero bezala, aurten ere Senpereko aintziraren ondoan ospatu da, maiatzaren 12an, 2002ko "Herri Urrats" Iparraldeko ikastolen jaia. Hauek mintzatu dira ekitaldian: Christine Bessonart, Senpereko auzapez andrea; Mixel Etxeberri, Seaskako burua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta Antonio Campos, Partaide, Ikastolen Elkarteko burua. Egun horretan bildutako dirua Hazparnen eta Garazin ikastola berriak eraikitzeke erabiliko da.

Eusko Ikaskuntza eta Euskadiko Kutxaren saria

Eusko Ikaskuntzak, Euskadiko Kutxarekin batera ematen duen Giza, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Sarirako epaimahaikidea izenda dezala eskatu dio Euskaltzaindiari. Zuzendaritzak Xabier Kintana Urriaga, Akademiaren idazkaria izendatu du.

Beste ordezkapen batzuk³¹

- Urtarrilaren 10ean, Deustuko Unibertsitatean, *El Correo* egunkariak eta bertako Unibertsitateak antolatu duten euskara-ikastaroaren aurkezpenean izan da. Andres Urrutia, *Jagon* sailburuak, ordezkatu du Euskaltzaindia ekitaldi horretan.
- Urtarrilaren 11n, Lasarte-Orian, Beasaingo CAF-en (Compañía Auxiliar de Ferrocarriles) eta Elhuyar-en Zientzia eta Dibulgaziorako Sariaren banatze-ekitaldian Juan Mari Lekuona Gipuzkoako ordezkaria izan da.
- Eusko Legebiltzarrak otsailaren 11n egin duen webgunearen aurkezpenean Henrike Knörr, buruordea, izan da.
- Euskal Herriko Unibertsitateak Juan José Linz jauna *Honoris Causa* Doktore izendatu du otsailaren 15ean, Leioako Campusean. Ekitaldi horretan Henrike Knörr buruordeak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Juan Jose Ibarretxe Lehendakariaren gomitari erantzunez, Donostian, otsailaren 20an egin den *Euskadi Informazio Gizartean* deritzon ekitaldiaren aurkezpenean Juan Mari Lekuona Gipuzkoako ordezkaria izan da.
- *Los vascos y la historia a través de Garibay*, Julio Caro Barojak idatzitako obra berrargitaratuaren aurkezpenean izan da Juan Mari Lekuona, Gipuzkoako Foru Aldundian, otsailaren 20an.
- Martxoaren 10ean, Henrike Knörr Madrilen izan da Real Academia Española-ko José Antonio Pascual jaunaren sarrera-hitzaldian.
- Martxoaren 22an, Tuteran izan dira Henrike Knörr eta Andres Iñigo euskaltzainak, 2002ko *Nafarroa Oinez*-en aurkezpenean.

- Martxoaren 26an, Koldo Mitxelena Kulturunean *Euskaldunon Egunkariak* euskal literaturari buruz egin duen webgune berriaren aurkezpenean izan da Gipuzkoako ordezkaria.
- Apirilaren 26an, Gasteizko *Artium* museo berriaren inaugurazioan Henrike Knörr buruordea izan da Akademiaren izenean.
- Apirilaren 28an, San Prudentzio zaindariaren omenez Arabako Diputazioan egin den ekitaldian, Arabako ordezkaria izan da.
- Bizkaiko Ikastolen Elkartek eta Getxoko San Nikolas Ikastolak, apirilaren 29an, Guggenheim Bilbao Museoa egin duten Ibilaldia 2002-ren aurkezpenean, Xabier Kintana idazkaria izan da.
- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eta BBVA Fundazioak, Banco Bilbao-ren sorrerako egoitzan inauguratu duten arte-erakusketan, Henrike Knörr izan da apirilaren 29an.
- Maiatzaren 5ean, Uitziko *Orixe-enea* etxean, Juan Mari Lekuona izan da Euskaltzaindiaren izenean "Orixe" poesia-sariaren banaketan, Andolin Eguzkitza epai-mahaikidearekin batera.
- Maiatzaren 7an, Bizkaiko Txakolinaren Jatorrizko Izenaren Kontseilu Erregulatzaileak Bilboko Carlton Hotelean egin duen ekitaldira –2001eko uztaren irekiera ofizialera– Xabier Kintana joan da.
- Maiatzaren 26an, Getxon egin den Ibilaldia 2002, Bizkaiko Ikastolen aldeko egunaren inaugurazio ekitaldian, Xabier Kintana idazkariak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Maiatzaren 28an, Bilbao Bizkaia Kutxaren Bilboko Kultura Aretoan, Labayru Ikastegiaren "Eliza eta euskara" erakusketaren inaugurazioan, Andres Urrutia Jagon sailburuak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Ekainaren 3an, Labayru Ikastegiaren 25. urteurrenaren ospakizunean, Euskalduna Jauregian egin den ekitaldian, Andres Urrutia izan da.
- Ekainaren 6an, Bilboko Arriaga Antzokian ospatu den *Deia* egunkariaren 25. urteurren-ekitaldira Jean Haritschelhar euskaltzainburua joan da.
- Beñat Oihartzabalek Baionako Lormand karrikako 28.ean, CNRSeko kide bezala ireki du Iker erakundearen bulego berria, uztailaren 1ean. Hainbat euskaltzain izan dira ekitaldi horretan.
- Bizkaiko Jagole den Loiolako San Inazioaren jaia dela eta, uztailaren 29an, Bizkaiko Foru Jauregian burutu den ekitaldian, Andres Urrutia Jagon sailburuak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Abuztuaren 8an, Donostiako 63. Musika Hamabostaldiko inaugurazio kontzertuan, Juan Mari Lekuona Gipuzkoako ordezkaria izan da Euskaltzaindiaren izenean.
- Irailaren 13an, ABAO/OLBE –Opera Lagunen Bilboko Elkartean– 2002-2003ko operaldiaren inaugurazioan, Xabier Kintana, idazkaria, izan da.
- Irailaren 22an, Uharte Arakilen omenaldia egin zaio urte luzez Aralarko San Migeleko kapilau izan zen Inozentzio Aierberi. Jose Mari Satrustegi eta Andres Iñigo izan dira Euskaltzaindiaren izenean.
- Urriaren 2an, Donostiako Miramar Jauregian, Eusko Ikaskuntzaren eta Euskadiko Kutxaren 2002. urteko *Giza, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria* ematea egin da. Bernardo Atxagak jaso du sari hori. Ekitaldi horretan Henrike Knörrek ordezkatu du Euskaltzaindia.


- Urriaren 6an izan da –Zumarragan eta Urretxun– Kilometroak 2002, Gipuzkoako Ikastolen urteko jaia. Xabier Kintana joan da.
- Urriaren 10ean, *Diario de Noticias* eta *Pamiela* agitaletxeak Jose María Jimeno Jurioren omenaldia eskaini diote eta ekitaldi horretan, Andres Iñigo izan da.
- Urriaren 10ean, *Topagune* Euskara Elkartearen Federazioaren egoitza berriaren inaugurazio ekitaldian, Abadiñoko Muntzaratz Dorretxean Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea izan da.
- Urriaren 20an, Tuteran, Argia Ikastolan egin den Nafarroa Oinez 2002-ren inaugurazio ekitaldian, Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria, izan da.
- Urriaren 23an, *Euskalduna* Jauregian, Gipuzkoako Ondare Arkitektonikoaren lehen liburukiaren aurkezpena egin da. Jose Luis Lizundia izan da, Euskaltzaindiaren izenean, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko Lehendakariaren gomitari erantzunez.
- Urriaren 24an, Donostiako Miramar Jauregian, Eusko Ikaskuntzako *Asmoz* Fundazioak antolaturiko Hizkuntza Plangintzako ikasturtearen hasiera-ekitaldian Juan Mari Lekuona izan da.
- Urriaren 24an, Bilboko Carlton Hotelean, UNICEFek antolatzen duen Hego Amerikako Herrien eta Euskal Herriaren arteko topagune izan nahi duen ekitaldira Xabier Kintana joan da.
- Azaroaren 25ean eta 26an, Madrilgo probintziako Villanueva de la Cañada herrian dagoen "Alfonso X el Sabio" Unibertsitateak Terminologia eta Normalizazioaz egin dituen jardunaldietan Miren Azkarate izan da Euskaltzaindiaren ordezkaria.
- Azaroaren 1ean, Mendillorri ireki berri duten Ezpondapea Kultur Elkartearen inaugurazioan, Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria izan da.
- Iruñeko Euskara Kultur Elkargoak antolatu dituen Euro Karta-ri buruzko Jardunaldietan Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria eta Jose Mari Satrustegi, euskaltzaina, izan dira. Jardunaldi hauek azaroaren 22an eta 23an izan dira.
- Azaroaren 24an, Andres Iñigo, Euskaltzaindiaren izenean, Lodosako "Ibaialde" ikastola berriaren inaugurazio ekitaldian izan da.
- Bizkaiko Foru Diputazioko Kultura Sailaren gonbiteari erantzunez, Esteban Urkiaga "Lauaxeta", Miren Agur Meabe eta Unai Elorriagaren omenez, Bilboko Euskalduna Jauregian, abenduaren 3an, izan den ekitaldian Andres Urrutia izan da.
- Durangoko 37. Euskal Liburu eta Disko Azokaren inaugurazioan, abenduaren 3an, Xabier Kintanak ordezkatu du Akademia.
- Abenduaren 3an, Luis Mari Bandres, Gipuzkoako Foru Kultura diputatuaren deia-ri erantzunez, Euskararen Eguna dela eta, Juan Mari Lekuona Gipuzkoako ordezkariak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Joseba Azkarraga, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuak, Giza Eskubideen Nazioarteko eguna dela-eta antolaturiko ekitaldira, Henrike Knörr, euskaltzainburordea eta Arabako ordezkaria joan da, abenduaren 9an.

II. Akademia jarduera

II. AKADEMIA JARDUERA

BATZORDEEN LANA

Euskaltzaindiaren akademia-jarduera batzordeetako lanen bidez garatzen da hein handi batean. Oinarri-oinarrikoa da, beraz, batzordeen eginkizuna. Horrez gain, bestalde, arau maila emateko eta gai nagusiak erabakitzeko hileroko osoko bilkurak ezinbestekoak dira.



Donostian, UZEIren egoitzan, 2002-IV-10ean, Hiztegi Batuko lantaldea; ezkerretik eskuinera: Jose Antonio Aduriz, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola eta Miriam Urkia.



Donostian, ordezkarietan, 2002-X-4an, Gramatika batzordea; ezkerretik eskuinera: Karmele Rotaetxe, Beñat Oihartzabal eta Patxi Ondarra.



Eibarren, 'Portalea' Kultura Etxean, 2002-XI-28an, Onomastika batzordea; ezkerretik eskuinera: Mikel Gorrotxategi, Patxi Galé, Jose Mari Satrustegi eta Henrike Knörr.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: *Iker saila* eta *Jagon saila*. Bi urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzainak, urgazleak eta esparru desberdinetako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutueta irakasleak, hezkuntza munduko irakas-

leen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hizteigileak, administrazioko teknikariak eta beste. Hori horrela izanik, Euskaltzaindiaren lana aberatsa eta ongi oinarritua gertatzen da, bai eta erabakiak hartzeko orduan ere.

Bilerak

Hona hemen, Euskaltzaindiko batzordeek 2002ean egindako bileren berri:

Batzordeak	Bilerak
Hiztegi Batuko lantaldea	21
Gramatika batzordea	8
Dialektologia-Atlasa batzordea	11
Onomastika batzordea	18
Herri Literatura azpibatzen batzordea	11
Literatura Ikerketa azpibatzen batzordea	11
Euskara Batuko batzordea	(*)
Jagoneko Corpus batzordea	11
Jagoneko Sustapen batzordea	4
Argitalpen batzordea	3
Azkue Biblioteka batzordea	4
Lege-Ekonomia batzordea	10
V. Jagon Jardunaldiak	1
VII. Herri Literatura Jardunaldiak	1
GUZTIRA:	118

(*) Batzorde honek ez du bilerarik egin. Batzordeko idazkaria arduratu da lanaren kudeaketaz eta batzordekideekiko harremana posta elektronikoz bideratu du.

II.1. HIZTEGIGINTZA

Akademia batendako hizteigintza oinarri-oinarrizko eginkizuna da. Une honetan Euskaltzaindiak bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*.


II.1.1. OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

Orotariko Euskal Hiztegiaren xedea, hiztegi historikoa eta deskriptiboa den aldetik, garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea biltzea da. Menderik mende eta euskalkiz euskalki euskaldunak nolako hizkuntzaz baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzeko helburua du hiztegi honek. Egitasmo hau aurrera eramateko, hitzarmena 1984an sinatu zen. Lehen liburukiak 1987an ikusi zuen argia eta guztira 16 liburuki izatea espero da.

XIV. liburukia

Azken zuzenketak egin ondoren, 2002an argitaratu da *Orotariko Euskal Hiztegiaren* XIV. liburukia (*Ped-Sua*). Liburuki honek ezaugarri hauek ditu:

- 906 orrialde eta
- 10.066 sarrera desberdin.



XV. liburukia

Idazketa

Tr - Za letren arteko sarrerak egin dira, gehienak XV. liburukiari dagozkionak.

Zuzenketak

Sub - Tx zerrendaren testua zuzendu da.

Zuzenketa-lanok epeka egin dira (ikus eranskina).

- a) Adibideen zuzenketa (hiztegiaren gorputz nagusia osatzen duten testu eta adibideak).
- b) Sarrera-buruak (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hiztegiileen aipuak, etab.).
- c) Koordinazioa eta zuzenketa.
- d) Zuzenketa filologikoa.

I. ERANSKINA

2002ko ERREDAKZIO-LANAK

Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
tr-	txin- /txiz	txin- /txiz	u-/uk	u-/uk- ur-/urr	ur-/urr-	ur-/urr-	ur-/urr-	ur-/urr-	ur/urr-za	za-	za-
txa-	txa-	txa-	ul-/up-	ul-/up-	ul-/up-	ul-/up-	ul-/up-	ul-/up-	xi-/xu- -/y	xi-/xu- /y	xi-/xu- /y
— —	— —	— —	txo- /txu-	txo- /txu-	txo- /txu-	txo-/txu- xa-/xe	xa-/xe	xa-/xe	xa-/xe	xa-/xe	xa-/xe
ta- txe-/txim-	txe-/txim-	txe-/txim-	txe-/txim-	txe-/txim-	txe-/txim- ut-/uz-	ut-/uz-	ut-/uz-	ut-/uz-	ut-/uz-	ut-/uz-	ut-/uz-
ts-/tu-	ts-/tu-	ts-/tu-	tz-	tz- urt-/us-	urt-/us-	urt-/us-	urt-/us-	urt-/us-	urt-/us-	urt-/us-	urt-/us-

II. ERANSKINA

2002ko ZUZENKETA-LANAK

	Koordinazioa eta zuzenketa		Testu zuzenketa	Sarrera-buruen zuzenketa	Zuzenketa fil. eta lexik. makinaratzea
Urtarrila	so-/su-		si- so-/su-	se-/so-	
Otsaila	pe-/su-	se-/su-	so-/su-	so-/su-	si-/su- pe-/su-
Martxoa	pe-	pe-	so-/su-	KM, Herr. etab-	
Apirila	pe-	pe-	sug-/sz-	sub-	
Maiatza	pe-	pe-	sub-/ta-	sub-/sz-	
Ekaina	sua- sub-/suk-	sua-	te-/tlak-	sub-/sz- ta-	pe-/su- pe-/su-
Uztaila	sul-/tat-		te-/tl- to-/tr-	ta-/te- ti-	(azken begirada)
Abuztua	tat-/ter-		to-/tr-	ti- to-/tr-	
Iraila	ter-/tra-		tr-/tw-	tt-/tu- tx-	
Urria	tra-/tw-		tr-/tw- txa-/txe-	tx-	
Azaroa	txa-/txi-		txa-/txe- txi-	tx	
Abendua	txi-		txi-	tx	

II.1.2. HIZTEGI BATUA

Orotariko Euskal Hiztegia deskribatzailea eta historikoa den bezala, *Hiztegi Batua* hiztegi arauemailea dugu.

Euskaltzaindiak arlokako eta zatikako zenbait hiztegi onartuak zituen, gai desberdinen inguruan: *Batasunerako hiztegia*, *Matematika hiztegia*, *Merkatalgo izendegia*, etab. Hiztegi hauez gainera, Akademiak nahitaezkoztat jo zuen euskara batuaren oinarritzko hiztegia osatzea. Horretarako sortu zuen 1992an Hiztegi Batuko batzordea. Euskaldunak eguneroko bizitzan gehien erabiltzen dituen hitzak finkatzea da xedea, beti ere hizkuntzaren batasunari begira.

Hiztegi Batuaren lehen itzulian forma erabilienak edota hedatuenak jaso dira. Bigarren batean erabilera urriagokoak jasoko dira. Lehenengo itzulian 20.000 hitz inguru landu eta onartu dira. Bigarren itzuliak beste horrenbeste forma izango ditu aztergai. Batzordeak 1997an ekin zion bigarren itzuli honi. Euskaltzaindiak hitz edo forma horiek onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 40.000 hitz inguru izan ditzake *Hiztegi Batuak*. Euskaltzaindiak lehen itzuliko formak, hitz-zerrendak, osoko batzarretan aztertu ondoren, arau gisa eman zituen argitara 2000an, atalez atal. Urte horretan, liburu bakarrean, *Euskera* agerkariaren 2000ko 2. zenbakian, hain zuzen, argitaratu ziren lehen itzuliko hitz-zerrenda horiek guztiak.

Hitzen azterketa

Hiztegi Batuko lantaldeak, 4.036 forma aztertu ditu. Horietatik, 2.652 ohiko aztergaikoak izan dira, *tanpa* - *zuzter* artekoak; 259, informazio osagarriaren argitan berrikus-teko utzitako aztergaikoak izan dira, *pasmatu* - *zuzter* artekoak. Besteak, 1.125, zerrenda osagarriari dagozkio, hau da, EEBS corpus osatuan 3 agerralditik gora dituzten formei: *abade-gintza* eta *endemiko* artekoak ikusi dira. Hitz horiek aztertu egin dira lantaldean, kasuan kasuko proposamenara iritsiz.

Forma horiek lantzeko eta horiei buruzko proposamenak egin ahal izateko, erabilera idatziaren eta bestelako informazioen lekuko diren 1.593 txosten izan ditu esku artean lantaldeak, UZEIko prestalanekeo taldeak eginak; iturri nagusitzat *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)* eta *Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistematikoa (EEBS)* corpusak izan dituzte txosten horiek.

Irizpideen txostena eguneratzea

Lantaldearen irizpideak sistematizatzen dituen dokumentua osatuz eta eguneratuz joan da, auzigai berriak agertu ahala, dagokien konponbidea zehaztu ahal izateko.

Irizpide horien eta kasuan kasuko informazioaren argitan aztertu diren forma edo hitz bakoitzaz lantaldeak bere iritzia eskaini du, batzuetan zabalago, soilago besteetan, onartzeko forma den esanaz, edo bigarren mailan onartzekoa den, edo okerra den, zein erabilere-remu duen, nola ageri den syntaxian, zein den duen adiera, etab.

Arauk

Euskaltzaindiak, urtean zehar egin dituen osoko bilkuretan, honako hitz-zerrenda hauek onartu ditu:

- abonamendu - agertze
- agi - ahozuri
- ahuakate - aitzitik
- aitzur - aldaratu
- aldarazi - alo

Hizkuntza kontsultak

Euskaltzaindiaren JAGONET zerbitzutik jaso diren galderei erantzun zaie.

Euskaltzaindiak eta UZEI-k Protokoloa sinatu

2000. urtean sinatutako hitzarmen orokorra garatuz, 2002ko Protokoloa sinatu dute Alberto Agirreazaldegi UZEIko (Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko) kudeatzaileak eta Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko idazkariorde-kudeatzaileak. Euskaltzaindiak emango duen diru-laguntzaren trukean UZEIk Akademiarentzat egingo duen lana zein izango den zehazten da:



Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2002-XII-16an, UZEIren eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmeneko Jarraipen Batzordearen bilera; ezkerretik eskuinera: Miriam Urkia, Imanol Urbietak, Xabier Kintana eta Jose Luis Lizundia.

- Hiztegi Batuari dagokionez, V, W, X, Y eta Z letrez hasitako hitzen zerrendak eta horien txostenak prestatu eta iritzi-emaileen oharrak jaso eta sistematizatu.

- Egungo Euskararen Biketa-lan Sistemakoari dagokionez (EEBS), 1999ko euskal produkzioaren lagina SGML nazioarteko formatuan zuzendu eta kodetu eta automatikoki lematizatu; eta, 1900-1998 bitarteko corpusean 1999koa gehitu eta kontsultagai jarri.

- Euskararen erreferentzia-copusari buruzko egitasmoa Euskaltzaindiari aurkeztu.

Hizkuntza-corpusei buruzko jardunaldia

UZEIk, urriaren 24an eta 25ean, *Hizkuntza-corpusak. Oraina eta geroa* izeneko jardunaldia antolatu du Donostian, Kutxa-ren areto nagusian, corpusen inguruan diharduten adituak bilduz. Jardunaldiaren irekiera euskaltzainburuak egin du eta, hitzaldia ematen eta mahai-inguruan parte hartzen Beñat Oihartzabal, *Iker* sailburua izan da Akademiaren ordezkari gisa.



Donostian, KUTXAren aretoan, 2002-X-24an, UZEIk antolatutako “Hizkuntza-corpusak: oraina eta geroa” izeneko jardunaldiaren irekitze-ekitaldia; ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, Miren Azkarate eta Javier Saizar. (UZEIk utzitako argazkia).

II.2. GRAMATIKA

Gramatika batzordea 1980an eratu zen eta orduz gero ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen. 1984tik 1999ra bitartean zortzi liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izenburuarekin.

Une honetan, batzordea *menderakuntza* aztertzen ari da. Gramatika arlo honek dituen bi atal nagusietarik (aditz jokatuaz baliatzen diren perpausak eta aditz jokatu gabeaz baliatzen direnak) lehenbizikoa darama oraingoz eskuartean.

Menderakuntzari buruzko gaiak

Aurreko urteetan bezala, 2002an ere menderakuntzari buruzko gaiak lantzea izan du eginkizun nagusia batzordeak. 1999. urtean *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V (Mendeko Perpausak-1)* liburukia argitaratu ondoren, geroztik batzordea gramatiken saileko hurrengo liburukia prestatzen ari da, *EGLU VI* izango dena.

2002. urtean honako txosten hauek izan ditu batzordeak eztabaidagai menderakuntzako bigarren liburukiari dagokionez:

- Kausazko perpausak: 7 irakurraldi eman zaizkio txostenari.
- Baldintza-perpausak: 2 irakurraldi.
- *Non (eta) ez ...-en*: 5 irakurraldi.

Hizkuntza kontsultak

Urte honetan ere ugaritzen joan dira iritsi diren hizkuntza-galderak. Galdera gehienak, Euskaltzaindia 2001ean eskaintzen hasi zen JAGONET zerbitzuaren bidez jaso dira. Horietako batzuk Gramatika batzordean aztertu dira eta beste batzuk, berriz, horretarako izendatuak izan diren batzordekideek aztertu eta erabaki dituzte, gaiaren arabera. Guztira, 71 galderari erantzun zaie:

- *-a, -ta (irekia / irekita)*;
- *aberasgarri(ak) dira*;
- *agindu ...-tzea / -tzeko*;
- *ahal, ezin: naiteke*;
- *aldean.... -ago-ren erabilera*;
- *al-en erabilera zehargalderetan*;
- *aspektua*;
- *bailuen*;
- *bait, -teagatik, -lako...-ren erabilera*;
- *bana, bosna*;
- *banengo... nengoke*;
- *bat(ak/ek) bertzea-ren erabilera*;
- *batak bestea / bata bestea hil*;
- *behar, beharko*;
- *besterik, baizik, baino*;
- *bestetan / beste batzuetan*;
- *biderkaketa taula: biko / biren / biaren*;

- data nola eman;
- diru nahikorik, nahiko dirurik;
- -egi atzizkia;
- -elakoa eduki;
- eragin (... arazi);
- eraman eta ekarri aditz trinkoak, baldintzaren ondorioan, nola idatzi;
- erdi bana / erdina;
- erdia(k), herena(k);
- eroan aditzaren erabilera;
- errez / erreaz;
- esan dosta ala dozta?;
- etorri eztakoak-en zuzentasuna;
- ez duzu zer esan / esanik / esana;
- ezin joan naiz;
- -(e)z gero baldintza irrealen, iraganean;
- -gatik / -rengatik: desberdintasuna;
- gaur zortziko / zortzirako;
- gerundioak;
- Gipuzkoa(ko) hiribidea;
- haizea/ak aldatu da/du;
- harantz, honantz + -koan;
- hiru kilo laurden, hiru laurden kilo;
- hiruna / hiruan gelditu partida;
- ikusia dut;
- inoren aholkuari / aholkuri;
- irakasle(ak) direnek;
- irten dit-en erabilera;
- izanagatik, izateagatik;
- izango zuen;
- joatearen ala joateko beldur?;
- juntadura eta komunztadura;
- -ko /-tako eta -an/-tan zenbatzaile zehaztugabeekin;
- leikezu;
- litekeena da prezioak igotzea / igo daitezen;
- milioi eurotan;
- nahiago... egin ala egitea?;
- neure buruan ala nere buruarengan?;
- noiz puskatuz eta noiz puskatzen;
- nominalizazioak;
- ogi erdika / erdikada;
- parte indivisa;
- txekeak nola idatzi;
- -tzea / -tzeko eskatu;
- -tzekotan, -tu ezean, -z gero;
- -tzen entzun didate / naute;
- + Txirritari omenaldia;
- urtetan / urteetan;
- zein baino zein ...-ago(a), zenbat eta ... -ago, hobe / hobeto;
- zenbat eta... hainbat eta hobe(to);
- zentro komertzial;
- zer edo zerk / zerk edo zerk;
- zeren... bait / zeina... -en.
- 3 m / s-ko abiadura.

II.3. DIALEKTOLOGIA

EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASA

Galdeketa puntuen sarea, galdesorta eta lan metodologia finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten. 145 herri hautatu ziren galdeketarako:

- Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36.
- Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.
- Iparraldean: Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren: 2.162 lexikoaz, 596 morfologiaz (336 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 syntaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. 145 herri horietan eginiko inkestekin 2.400 zinta grabatu ziren. Euskaltzaindiak bildurik dituen grabazioak 4.000 orduetik gora dira.

Egitasmoaren helburua galdera horiekin atlas bat osatzea da, hots, inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea eta jendearen eskuetan jartzea.

Atlasgintza

Atlaseko lantaldeak 2002an izan dituen lan eremuak hauek izan dira:

- inkesten datuak base automatizatuan sartzen jarraitzea.
- datuak lantzea, datu-basea prestatuz eta mapak editatuz.

Laugarren koadernoko inkesten datuak sartzen jarraitu

2002. urtean 23 inkesta informatizatu dira EHHA egitasmoan:

- Gipuzkoa (11): Azkoitia, Deba, Eibar, Elgoibar, Getaria, Lasarte, Mendaro, Oiartzun, Orio, Pasaia eta Urretxu.
- Nafarroa (4): Etxalar, Goizueta, Leitza eta Luzaide.
- Lapurdi (3): Arrangoitze, Beskoitze eta Mugerre.
- Nafarroa Beherea (5): Aldude, Arnegi, Irisarri, Isturitze eta Uharte-Garazi.

Atal honetako lexikoak duen konplexutasuna dela eta (teknologia tradizionalako garraioak, lurra lantzeko lanabesak, sagardo/ardogintza...) zintak entzutera jo behar izan da sarritan.

1. irud.: laugarren ataleko 4-a datu-sarreraren egoera lurraldeka

4-a ATALA	aurretik eginak	2002an eginak	oraindik egiteko	guztira
BIZKAIA	36	0	0	36
ARABA	1	0	0	1
GIPUZKOA	25	11	0	36
NAFARROA	20	4	3	27
LAPURDI	10	3	2	15
NAF. BEHEREA	7	5	6	18
ZUBEROA	3	0	9	12

Datuen lantzea

Arlo honetan urrats hauek egiten dira: lehenik mapak egin, berrikusi eta zuzendu; datuak elaboratu eta mapen eta datu-basearen azterketa egin.

Lehen liburukia

Urtearen amaieran hasi da lehen liburukia argitaratzeko plana gauzatzen, Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmenean ezarritakoaren ildotik.

Bigarren liburukia

Liburuki honetako datu-base osoa aztertu eta zuzendu da, nahiz eta oraindik bartzor-deak ez eman azken onarpena.

Hirugarren liburukia


Bukatu dira egitea falta ziren 49 herritako mapak.

Laugarren liburukia

Liburuki honek izango dituen 260 galderatik, 2002. urtean, 141 mapa egin dira.

2. irudia: lehen lau liburukien egoera

Argitaratze lanen egoera 2002-XII-31n



EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASA
DATU-SARRERA: 4a. ATALA

2002an informatizatutako herriak

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
101 Getxo						
102 Leioa						
103 Zollo						
104 Sondika						
105 Laukiz						
106 Lemoiz						
107 Uribe-Etxebarri						
108 Zaratamo						
109 Orozko						
110 Mungia						
111 Zeberio						
112 Bakio						
113 Fika						
114 Larrabetzu						
115 Arrieta						
116 Lemoa						
117 Dima						
118 Zeanuri						
119 Errigoiti						
120 Bermeo						
121 Busturia						
122 Euba						
123 Mañaria						
124 Otxandio						
125 Ibarri						
126 Mendata						
127 Kortezubi						
128 Elantxobe						
129 Berriz						
130 Arrazola (Atxondo)						
131 Elorrio						
132 Bolibar						
133 Gizaburuaga						
134 Lekeitio						
135 Markina-Etxebarri						
136 Ondarroa						
201 Aramaio						
301 Leintz-Gatzaga						
302 Arrasate						
303 Eibar						
304 Araotz (Oñati)						
305 Oñati						

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
306 Bergara						
307 Elgoibar						
308 Mendaro						
309 Deba						
310 Azkoitia						
311 Urretxu						
312 Legazpi						
313 Zegama						
314 Ezkio-Itsaso						
315 Zestoa (Arroa)						
316 Azpeitia						
317 Getaria						
318 Beizama						
319 Beasain						
320 Ataun						
321 Errezil						
322 Aia						
323 Orio						
324 Asteasu						
325 Ikaztegieta						
326 Amezketeta						
327 Tolosa						
328 Donostia (Ibaeta)						
329 Lasarte						
330 Andoain						
331 Elduain						
332 Oresa						
333 Hernani						
334 Pasaia						
335 Oiartzun						
336 Hondarribia						
401 Urdiain						
402 Arbizu						
403 Dorrao						
404 Gaintza						
405 Leitza						
406 Etxarri						
407 Oderitz						
408 Goizueta						
409 Ezkurra						
410 Beruete						
411 Igoa						
412 Etxaleku						
413 Suarbe						
414 Sunbilla						
415 Donamaria						
416 Etxalar						
417 Alkotz						
418 Aniz						
419 Lekaroz						
420 Zugarramurdi						

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
421 Eugi						
422 Erratzu						
423 Zilbeti						
424 Mezkiritz						
425 Luzaide						
426 Abaurregaina						
427 Eiaurrieta						
501 Hendaia						
502 Donibane-Lohizune						
503 Azkaine						
504 Sara						
505 Senpere						
506 Ahetze						
507 Arrangoitze						
508 Uztaritze						
509 Mugerre						
510 Itxasu						
511 Urketa						
512 Beskoitze						
513 Hazparne						
514 Makea						
515 Bardoze						
601 Aldude						
602 Bidarra						
603 Baigorri						
604 Arnegi						
605 Uharte-Garazi						
606 Irisarri						
607 Isturitze						
608 Arruta-Sarrikota						
609 Armendaritze						
610 Esterenzubi						
611 Gamarte						
612 Landibarre						
613 Behorlegi						
614 Arboti						
615 Garruze						
616 Jutsi						
617 Larzabale						
618 Bastida						
701 Phagola						
702 Domintxine						
703 Urdiñarbe						
704 Altzürükü						
705 Larrañe						
706 Altzai						
707 Sohüta						
708 Muntori						
709 Santa-Grazi						
710 Ürrüxtoi						
711 Barkoxe						
712 Eskiula						

II.4. ONOMASTIKA

Onomastika batzordea 1972an sortu zen, lehendabizi "Herri eta Herritarren Izenen batzordea" izenarekin. 1981ean, Loiolako II. Barne Jardunaldietan batzorde guztien organigrama finkatu zenean, oraingo izena eman zitzaion batzordeari.

Batzorde honek ponte-izenak, deiturak, leku-izenak eta exonimo edo kanpo-izenak aztertzen ditu; alegia, izendegi ororekiko ikerketa finkatze, gainbegiratze, irizpen eta ziurtagiri-emate edota aholkularitza lanetan dihardu.

Euskal Deituren Izendegia osatzen

Euskal Deituren Izendegia 1998an argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren beste 58 deitura finkatu dira batzordean, 2002an zehar.

Ponte izendegia osatzen

Ponte izendegia / Diccionario de nombres de pila / Dictionnaire des prénoms liburu 2001ean argitaratu zen. Liburu horretan agertzen ez diren 76 pertsona-izen finkatu dira batzordean, 2002. urtean.

Toponimia-lanak gainbegiratu

Bakioko eta Errenteriako toponimiaren ikerketak gainbegiratu dituzte bi batzordekidek, eta Aramaio Haraneko maparen zuzenketa beste kide batek, batzordearen aginduz.

Iparraldeko toponimiaren ikerketa egiten hasia den Euskal Kultur Erakundeko ordezkari birekin bildu da Onomastika batzorde-idazkaria, haiek eskatuta. Oinarri gisa, Euskaltzaindiaren datu bilketako fitxa eta irizpideak erabiliko dituzte. Prozedura akademikoa ongi zehaztea da Onomastika batzordearen asmoa.

Herri-izendegiak eta eskualdeak

1. Nafarroa Behereko herri-izendegia. Batetik, *Arberoa* eskualdeko herri-izenak eta herritarrenak onartu ditu batzordeak; guztira, 22 izen. Bestetik, *Oztibarre* eskualdeko herri eta herritar izenak ere, onartu dira; guztira, 26 izen.
2. Trebiñuko herri-izendegia. Hegoaldeko eta Mendebaldeko 33 herri-izen onartu dira, 5 mortururenak, 5 kuadrilarenak eta konterriarena.
3. Villaverde Turtzioz-eko izendegia. Bi herri-izen eta 10 auzo-izen onartu dira.

Erakunde eta elkarte batzuen kontsultak

Lan hau, batez ere Euskaltzaindiak 2002an EUDELekin (Euskadiko Udalen Elkartearekin) egin duen hitzarmenari esker gauzatu ahal izan da:

1. Udal eta kontzejuen izenez emandako irizpenak. Batetik, Aiarako 24 kontzeju-izen hauek berretsi dira: *Agiñaga, Añes, Arespalditza, Beotegi, Opellora / Costera, Erbi, Etxegoien, Izoria, Kexaa, Lexartzu / Lejarzo, Luxo / Lujo, Luiaondo,*

Llanteno, Madaria, Maroño, Menagarai, Menoio, Murga, Olabazar, Ozeka, Retes Llanteno, Salmanton, Soxo / Sojo, Zuhatza.

Bestetik, udal edota kontzeju hauen izenak onartu dira: *Bergonda, Ozeka, Alaitza, Altzaga, Apinaiz, Arangiz, Erroitegi, Karkamu, Korres, Opellora eta Donemiliagako 5 izen hauek berretsi dira: Adana, Aspuru, Txintxetru, Egilatz eta Galarreta; Gebara, Jauregi, Leziñana (Lantaron), lasarteoriatar, Lukiano (Lukio, Lukiao), Maestu / Maeztu, Langara Oka, Oleta, Urizaharra, Zubilarra, Durruma, Untzaga eta Apregingdana, Pagoeta eta Bikuña.*

2. Herri-, auzo-, kale-, industrialde-, baserri-, baseliza- eta etxalde-izenez herri hauetako udalei erantzun zaie idatziz edo bertara joanez: Aiarako kontzeju hauek: *Agiñaga, Añes, Arespalditza, Beotegi, Erbi, Etxegoien, Izoria, Kexaa, Llanteno, Luiaondo, Luxo / Lujo, Madaria, Maroño, Menagarai, Menoio, Murga, Olabazar, Opellora / Costera, Ozeka, Retes Llanteno, Salmanton, Soxo / Sojo eta Zuhatza.* Gainerako hauek: *Agoitz, Agurain, Antzuola, Arratzu-Ubarrundia, Arrieta, Arrigorriaga, Balmaseda, Barañain, Bergara, Donemiliaga (Adana, Aspuru, Bikuña, Durruma, Egilatz, Erdoña, Galarreta, Zuatzola), Durango, Elorrio, Ermua, Erreterria, Gueñes, Hondarribia, Iruña Oka, Leioa, Oion, Tresponde, Zaldibar eta Zangoza.* Guztira, 931 izen.
3. Beste erakunde hauei erantzun zaie: Arabako Foru Aldundia, Bidania-Goiatzeko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia, Azkue Biblioteka batzordea, JAGONET zerbitzua, Bilboko Itsas Museoa, Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioeko Euskal Erakundea, Gasteizko Udala, Getxoko Udala, Durangoko Udala, Idiazabalgo Udala, La Salle Kristau Eskoletako Anaidia, Mendi Federazioa eta Orkoiengo Udala,

Banakako kontsultak

Lehenago aipatu diren pertsona-izenez eta deiturez izan diren kontsultez gain, herri-tarrek gai desberdinez egindako beste 6 galderari ere erantzun zaie.

Bada beste kontsulta-iturri bat, gero eta gehiago erabiltzen hasi dena: internet. Urte honetan, bide horretatik heldu diren 129 galderari erantzun zaio; horietako 117, pertsona-izenez izan dira, eta, beste 12ak bestelako gaiez.

Hizkuntza irizpideez

Toponimia txikiaren kodetzea dela eta, Deustuko Unibertsitateak duen DEIKER ikerketa-zentroak erabili beharreko arau-irizpideak zuzendu, argitu eta kodetu dira, ACCESSen erabili ahal izateko.

"Izenen hurrenkera eta zeinu diakritikoen erabilera toponimia nagusian" izeneko txostena aztertu eta onartu da. Izen bera duten herrien kasuan, batzuetan zehaztailea jartzea beharrezkotzat jo da: adib., *Bastida Errioxa* eta *Bastida Arberoa*.

Exonomastika

Aita santuen izenak onartu ditu Exonomastika azpibatzerdeak, 79 izen, guztira.

Batzordea biltzarretan

- Onomastikaz hiru urtean behin egiten den Nazioarteko Biltzarra aurten Uppsala-n -Suedian- izan da, abuztuaren 19tik 24ra, bertako Unibertsitatean. 21. ICOS izan da (International Congress of Onomastic Sciences). Henrike Knörr Onomastika batzordekidea izan da biltzar horretan, eta batzordekide hauen txostenak aurkeztu ditu:

- Henrike Knörr: "Quelques prénoms et hypocoristiques d'Alava (Pays Basque), XVe eta XVIe siècles"
 - Andres Iñigo: "Les sobriquets dans les noms des maisons de la Navarre".
 - Patxi Salaberri: "The hypocoristic formation in Basque".
 - Mikel Gorrotxategi: "Oikonymic or farm-based surnames in Basque country".
- Irailaren 1etik 4ra, Santiago de Compostelan, "Frei Martin Sarmiento" galiziar ospetsuaren III. mendeurrena dela eta, Nazioarteko Biltzarra egin da, Onomastikaz, Real Academia Galega-k, Instituto da Lingua Galega-k eta Asociación Galega de Onomástica-k antolatuta, eta Galiziako Xuntaren babespean. Biltzar horretan, Euskaltzaindiko Onomastika batzordekide bi izan dira gonbidatuak:
- Lehen mahai-inguruan, Mikel Gorrotxategi batzorde-idazkariak parte hartu du, ponte-izenen eta toponimoen inguruan gaur egun nagusitzen ari diren joerez mintzaturik.
 - Bigarren mahai-inguruan, Jose Luis Lizundia batzordekideak parte hartu du, exonimoen erabileraren gehiegikeriak nabarmenduz, hau da, kanpoko toponimoen moldaketaz.
- Akademien arteko jardunaldia Katalunian. Azaroaren 20an eta 21ean Euskaltzaindiko Onomastika batzordekide bi Katalunian izan dira. Bartzelonan, Institut d' Estudis Catalans-en egoitzan, hiru Hizkuntza Akademia hauek bildu dira: Institut d' Estudis Catalans, Real Academia Galega eta Euskaltzaindia. Jardunaldiaren xedea, Espainiako Erresumako exonimoen azterketa eta finkapen proposamena egitea izan da. Euskaltzaindiko Onomastika batzordetik Mikel



Bartzelonan, Institut d'Estudis Catalans-en egoitzan, 2002-XI-21ean, Akademia desberdinetako Onomastika batzordeen bileran; ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Joan-Anton Rabella, Joan A. Argenter, Josep Moran, Mikel Gorrotxategi, Josep Laporte, Xesús Ferro, Antón Santamarina, Joan Martí i Castell eta Salvador Alegret i Sanromà.

Gorrotxategi eta Jose Luis Lizundia izan dira. Institut d'Estudis Catalans-eko presidentea den Josep Laporte i Salas jaunak eta Filologia sailburu zaharrak eta berriak hartu dituzte Real Academia Galegako eta Euskaltzaindiko ordezkariak.

Gasteizko Toponimia Lantaldea

Gasteizko Udalarekin sinatutako Hitzarmenaren barruan, Toponimia lantaldea lanean ari da, udalerrri barruko toponimia aztertzen.

Orain arte informatizatutako 400.000 sarreretatik, *Malizaeza* azpieskualdeko 85.000 toponimo aztertu dira eta, ondorioz, 4.000 inguru normalizatu, lehen liburukia argitaratzeko asmoz.

Horrez gainera, aurtengo lan handiena, sarrera guztiak lematizatu eta sailkatu ondoren, datu-basetik *Word* formatura bihurtzea izan da, argitalpenari begira. Horretarako, aipatutako azpieskualdeari dagozkion herrien arabera sailkatu dira toponimoak eta mapetan kokatzen hasi.

Halaber, *Aretxabaleta*, *Armentia*, *Arriaga*, *Berroztegieta*, *Ehari/Ali*, *Eskibel*, *Gardelegi*, *Gaztelu/Castillo*, *Lasarte*, *Mendiola* eta *Monasterioguren* herrietako kontzeju-buruekin harremanetan jarri da lantaldea eta, ondoren, lekukoei dagozkien inkestak egin zaizkie.

Aipatu beharrekoa da, Gasteizko Toponimia lantaldeak Arabako ordezkartzan dagoenetik Onomastika eta Toponimiari buruzko hainbat kontsulta erantzun dituela. Eginkizun honen xehetasunak III. atalean ematen dira.

II.5. LITERATURA

Euskaltzaindiko Literatura batzordea bi arlo nagusitan ari da lanean. Batetik, herri literaturaren adierazpen desberdinak aztertzen dira, batez ere bertsolaritzatik kanpo dauden beste generoak. Bestetik, euskal literaturaren hiztegia lantzen dihardu: hitz zerrendaz gain, literaturako hitz garrantzitsuenen azalpenak emango ditu hiztegi horrek, maila eta luzera desberdineko txostenak eskainiz. Helburua seiehun inguru txostenez osatutako hiztegia eskaintzea da.

Herri Literaturakoek parte hartzen dute, baita ere, hango eta hemengo antolabideetan, herri erakundeek Euskaltzaindiaren laguntza eskatzen badute, hala nola sariketetakoa epai-mahaietan, sari banaketetan eta hitzaldiak ematen. Bestalde, Literatura Ikerketa azpi-batzordeak parte hartzen du autore ospetsuen omenaldietan, omendutako pertsonen buruzko ikerketa txostenak eginez.

II.5.1. HERRI LITERATURA

VII. Herri Literatura Jardunaldiak: *Etno-kantu laburrak*

Herri Literaturari buruzko VII. Jardunaldiak prestatzea izan da 2002an, azpi-batzorde honen lan nagusia. Azaroaren 28an eta 29an egin dira, Eibarren –Portalea Kultura Etxean–, Juan Antonio Mogelen omenez, *Peru Abarca* idatzi zueneko bigarren mendeurrenean.

Hona hemen jardunaldi horien egitaraua:



Eibarren, 'Portalea' Kultura Etxean, 2002-XI-28an, VII. Herri Literatura Jardunaldiak; ezkerretik eskuinera: Juan San Martin, Jean Haritschelhar, Juan Mari Lekuona eta Jabier Kaltzakorta.

Azaroak 28

Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren ongi-etorriaren eta Juan San Martin euskaltzain eibartarraren sarrera-hitzaren ondoren, hitzaldi eta txosten hauek irakurri dira:

- "Erronda-kantuak eta eske-bertsoak". Jabier Kaltzakorta, euskaltzain urgazle, Labayruko kide eta Deustuko Unibertsitateko irakasleak.

- "Zuberotar irri-kontakizunak". Txomin Peillen, euskaltzain eta Paueko Unibertsitateko irakasle ohiak.
- "Lavar pañuelo / lavar camisa". Formas y símbolos antiguos en canciones modernas". Pedro Manuel Piñero, Sevillako Unibertsitateko Espainiar Literatura saileko zuzendariak.
- "Marijesiak". Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak.
- "Mitoa herri kantatu eta ipuinetan". Jose Mari Satrustegi euskaltzainak.
- "Herriaren memoria, lanbidez lanbide berritzen (Orixeren *Euskaldunak* poeman)". Joxe Mari Aranalde euskaltzain urgazleak.
- "Manuel Lekuonak *Yakintza*-n argitaratutako testuen aukezpena". Juan Mari Lekuona, euskaltzain eta Literatura batzordeburuak.

Azaroak 29

- "Apain-olerkia: azterbideak". Juan Mari Lekuona, euskaltzain eta Literatura batzordeburuak.
- "Danzas cantadas. El espacio de la canción en la danza". Juan Antonio Urbeltz, ARGIA dantza-taldeko zuzendari eta ikertzaileak.
- "Lira mínima oral: poética y estética". José Manuel Pedrosa, Alcalá de Henares-eko Unibertsitateko irakasleak.
- Herri Literatura azpibatzerdearen *adierazpena*.

II.5.2. LITERATURA IKERKETA

Idatzi eta eztabaidatutako txostenak

Batzordeak honako artikulua hauek prestatu eta eztabaidatu ditu:

a) Artikulu luzeak, batez beste 7-8 orrialdekoak:

Erritmoa
Estiloa
Semiotika

b) Artikulu ertainak, batez beste 2-3 orrialdekoak:

Ahots	Modu
Aspektu	Narratologia
Egitura	Nouveau Roman
Espazio	Oratoria
Hipertestualitate	Pertsonaia
Irakurketa	Sistema literarioak
Literariotasuna	Transtextualitate

c) Egin diren artikulua laburrak, gehienbat orrialde batekoak:

Anakronia	Kontzesio
Argumentu	Korapilo
Aurkakoa	Laguntzailea
Barne-bakarriketa	Lehengaiak
Bidaltzailea	Mataza
Dialogismo	Metagogeia
Diegesi	Metalepsia
Diskurtso	Mintzaldi (Diskurtso)
Elkarrizketa	Narrazio mailak
Errejimen	Neurtitza
Exemplum	Objektua
Exklamazio	Paralepsi
Fabula	Perspektibismo
Gaia	Pertsona
Galdera erretoriko	Pertsonaia
Gertaera	Polifonia
Historia	Pragmatika
Intriga	Predikua
Istoria	Preterizio
Jasotzailea	Pretermisio
Kanpo-azterketa	Rol
Kodea	Saturazioa
Komunikazioa	Subjektua
Konponketa (desenlace)	

Hitz-sarrerak bildu eta zuzendu

Eginda zeuden txostenetatik, 374 bildu, erabat informatizatu eta zuzendu dira, lehen azterraldia emanez.

II.5.3. SARIKETAK

Eleberri, antzerki, olerki eta saiakera sariak

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarrekin antolatzen dituzten literatura-sarien 2002ko irabazleak honako hauek izan dira:

- Txomin Agirre eleberri saria: *Bost ahizpa*. Aitor Arana.
- Toribio Alzaga antzerki saria: *Lagun mina*. Aitor Arana.
- Felipe Arrese Beitia olerki saria: Eman gabe geratu da sari hau.
- Mikel Zarate saiakera saria: *Jean Pierre Goytino: Californiako Eskual Herria*. Xipri Arbelbide.



Egoitzan, 2002-XII-13an, 2002ko sarien emankizun-ekitaldia; ezkerretik eskuinera: Xipri Arbelbide eta Aitor Arana.

Epaimahaikoak honako jaun-andre hauek izan dira:

- Txomin Agirre sarian: Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo.
- Toribio Alzaga sarian: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
- Felipe Arrese Beitia sarian: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.
- Mikel Zarate sarian: Xabier Altzibar, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

R. M. Azkue sariak

Euskaltzaindiak idazle gaztetxoen lanak saritzen ditu urtero. Hona hemen 2002ko R. M. Azkue saria irabazi dutenen berri:



Egoitzan, 2002-II-1ean, 2001eko Azkue sarien emankizun-ekitaldia; lehen bi lerroetan: irabazleak.

Sari-mota, adina	Lan sarituak	Irabazleak	Ikastetxea eta herria
A: narrazioa 10-13 urte	1) <i>Bi ahizpak</i> 2) <i>Arnasa sakona</i> 3) <i>Egoera larri bat</i>	Maiatza Louessard Estibaliz Olibares Etxebarria Aiora Yurrebaso Zarate	Xalbador (Kanbo) Arratia (Zeanuri) Arratia (Zeanuri)
A: olerkia 10-13 urte	1) <i>Larrañe</i> 2) <i>Amodioa</i> 3) <i>Zertarako bizi</i>	Nahiara Saralegi Goena Uxue Buñuales Ugalde Asier Moreno Saldise	Xalbador (Kanbo) San Fermin (Iruñea) San Fermin (Iruñea)
B: narrazioa 14-17 urte	1) <i>Aberri arrotza</i> 2) <i>Sorterrira bueltan</i> 3) <i>Norabait:</i> Accesit: – <i>Desio gozo-gaziak</i>	Dioni Aguerre Lourdes Elizegi Urrutia Ekiñe Aristizabal Tolosa Aintzane Usandizaga López	Etxepare (Baiona) Lekaroz (Elizondo) Haurtzaro (Oiartzun) Landaberri (Lasarte)
B: olerkia 14-17 urte	1) <i>Arrotza</i> 2) <i>Zu ikustean</i> 3) <i>Elkarrekin bai, lortuko dugu</i> Accesit: – <i>Itsasoaren ilun</i>	Amaia Jauregizar Ormaetxea Iskander Barrena Zubiaur Jon Muñoa Errasti Itxaso Munarriz Aramendi	Aixerrotape (Gernika) Txorierri (Derio) Txindoki (Beasain) Loinazpe (Beasain)

Honako jaun-andre hauek izan dira epaimahaikide sariketa honetan:

- A mailan, Igone Etxebarria, Amagoia López de Larruzea eta Manu Lopez Gaseni.
- B mailan, Joseba Butron, Kirmen Uribe eta Jabier Kaltzakorta.

Bestelako sarien epaimahaietan parte hartzea

- Urtero, Madrilgo Hezkuntza eta Kultura Ministerioak ematen dituen "Literatura Sari Nazionalerako", Euskaltzaindiaren izenean 2002ko deialdian parte hartzeko izen-

datu diren epaimahaikideak honako hauek dira: poesia arlorako, Felipe Juaristi; narraziorako, Ana Toledo; saiakerarako, Henrike Knörr; antzerkirako, Patri Urkizu; haur eta gazte literaturarako, Miguel Angel Asiain; itzulpen sarirako, Josu Zabaleta eta "Premio Nacional de las Letras Españolas" delakorako, Andolin Eguzkitza.

- Bestalde, Iruñeko Udalak urtero antolatzen dituen literatura lehiaketetako epaimahaietan hauek izan dira Euskaltzaindiaren izenean: Euskarazko Haur Literatura Lehiaketan, Paskual Rekalde eta, Egile Berrientzako Literatura Lehiaketan, Andolin Eguzkitza.
- Uitziko Kontzejuan, Nikolas Ormaetxea "Orixe" II. Literatura Lehiaketan, Juan Mari Lekuona eta Andolin Eguzkitza izan dira epaimahaikide Euskaltzaindiaren izenean.
- Bertso jarrien sariketa hauetako epaimahaietan hartu dute parte kide hauek:
 - Juan Mari Lekuonak, Zarauzko *Basarri* bertso jarrien sarian.
 - Joxe Mari Aranaldek, Orixako *Orixe* bertso jarrien sarian.
 - Joxe Mari Aranaldek, Zarauzko *Basarri* sarian.
 - Zarautzen, bertsolari gazteentzat antolatutako *Lizardi* sarian, Pello Esnal ardura-dun eta epaimahaiko izan da.

II.6. EUSKARA BATUA

Euskaltzaindiak aspaldi dihardu batasungintzan. Eta batasungintza esatea eta araugintza esatea bat dira. Akademiaren lehentasunetariko bat da hiztegegintza, eta eginkizun horretan oinarritzen da Euskara Batuko batzordearen izaera, Hiztegi Batuko lantaldetik hitz-zerrendak jasoaz eta Euskaltzaindiaren osoko bilkuran aurkeztuz, eta zerrenda horiei egiten zaizkien oharren eztabaida ere bideratuz.

Aurkezturiko zerrendak

Euskara Batuko batzordeak, Hiztegi Batuko lantaldetik jaso dituen zerrenda hauek gainbegiratu ditu, eta Euskaltzaindiaren hileroko osoko bilkuretan aurkeztu:

ahuakat – aitzitik
aitzur – aldaratze
aldarazi – alo
aloe – analogiko
analogo – antzoki
antzu – arbindu
arbiska – arlotetze
arma – arrimu
arrimugarri – askatu
askatzaile – atomatu

Azterturiko oharrak

Proposamenak osoko bilkuretan aurkeztu ondoren, oharrak egiteko epea izan dute euskaltzainek hileroko. Euskara Batuko batzordeak, honako hitz-zerrenda hauei egin zaizkien 580 ohar aztertu ditu, eta erabaki-proposamenak osoko bilkuretan aurkeztu, ondoren:

aitzur – aldaratze
aldarazi – alo
aloe – analogiko
analogo – antzoki
antzu – arbindu

Ondoren adierazten diren hitz-zerrendetako oharrak, batzordeak aztertu baditu ere, erabaki-proposamenak ez dira aurkeztu osoko bilkuretan:

arbiska – arlotetze
arma – arrimu

II.7. JAGON SAILA

Euskaltzaindiak sorreratik du *Jagon Saila*, bere helburuetan hizkuntzaren jagotea, zaintzea, alegia, ezarria duelako. Sail hau bi batzordetan dago banatua:

- *Corpus* batzordea euskararen corpusa jagoteaz arduratzen da, helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik.
- *Sustapen* batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratzen da.

II.7.1. CORPUS BATZORDEA

JAGONET: kontsulta- eta aholku-zerbitzua

2001eko martxoaren 21ean hasi zen jendaurrean lanean –Euskaltzaindiaren webgunean– JAGONET zerbitzua (www.euskaltzaindia.net). Emandako erantzunen datu-basea ikusteko aukera eskaintzen da batetik eta, bestetik, galderak egitekoa.

1. **Galdeleku informatikoa**, posta elektronikoko bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da (eta pribatua da galdegilearekiko). Urtean zehar 900 galdera jaso dira, eta horietako 892 galderari erantzun zaie.
2. **Galde-erantzunen datu-basea**, emandako erantzunak bilduz osatzen doana. Datu-base horri 106 galdera-erantzun gehitu zaio aurtan, guztira, urtearen bukaran, interneteko datu-baseak 382 galdera-erantzun dituelarik.
3. **Interneteko bisitari-kopurua**. Urtean zehar, 12.073 bisita izan zituen JAGONET zerbitzuak interneten, egunero 33 kontsulta, batez beste.

Batzordearen ustez, gramatikaren ikuspegitik zuzenak diren forma edo egitura guztiak ez dira egokiak irakaskuntzari eta batasunari begira eta, beraz, egokitasuna landu beharra dagoela uste du. Ildo horretatik, datu-baseko hainbat galde-erantzun aztertu dira batzordean batasunerako hobespen-bidea urratzen hasteko:

- *euro*-aren erabilera.
- Banketxeetako txekeak nola idatzi eta irakurri.
- Morfologia (*berezko, geurezko, neurezko; nola zuk esan duzun; -tzat atzizkia ts, tz txistukarien ondoren*).
- Idazkera (data jartzerakoan urteari puntua jarri al ez, eta *hamaika*-ren idazkera).
- Lexikoa (*ez zait axola / ez dit axola; bost axola*).
- Aditza (*beldur izan / beldurra ukan*).

Euskalkien lantaldea

Batetik, Nafarroan eta Bizkaian euskalkien eta euskara batuaren erabileraz egindako inkesten emaitzak banatu dira.

Bestetik, gai honi buruzko gogoeta egin du lantaldeak, hizkuntza estandarrak eta tokian tokiko euskarek badutela beren lekua uste baitu. Horretarako, ahalegin berezia egin nahi da hizkera ezberdinei dagokien maila edo erregistroa aitortzeko. Abiapuntu bezala,

Euskaltzaindiak gai horren inguruan urteetan zehar egin dituen adierazpenak kontuan hartu dira.



Donostian, ordezkaritza, 2002-X-25ean, Corpus batzordeko Euskalkien lantaldea; ezkerretik eskuinera: Patxi Iñigo, Kaxildo Alkorta, Jon Aurre eta Andres Urrutia.

Azkenik, gaia aztertzeko, zenbait urrats egitea onartu da: lantaldeak lana alorke egin (Hezkuntza, Administrazioa eta Komunikabideak); adituen iritzia jaso (Jardunaldia); lantaldearen behin-behineko proposamena eta, azkenik, lantaldearen behin betiko proposamena Euskaltzaindikoko osoko bilkuran aurkeztu, ongi baderitzo Euskaltzaindiak gai honetaz adierazpena egin dezan.

II.7.2. SUSTAPEN ALORRA

Euskararen estatusaz egindako adierazpenak

Batzordeak, Euskaltzaindiak hizkuntzaren estatusaz egin izan dituen adierazpenak bildu ditu, hiritarrek horien berri zuzena izan dezaten. Adierazpen horiek, behar bezala sailkatu ondoren, webgunean jartzeko asmoa dago.

VI. Jagon Jardunaldiak

Sustapen batzordeak, "Eliza eta euskara" gaiaren inguruan jardunaldi batzuk antolatu nahi ditu, Euskal Herriko elizbarrutietako egoera ezberdinak aztertzeko.

Gai horri buruzko lehen jardunaldiak –hots, Baionako eta Oloroe diozesi-eremukoak– "Eliza eta euskara" gaiaz, Hendaiaiko Udaletxean egin dira, irailaren 27an. Hona hemen jardunaldi horien egitaraua:



Hendaiaiko Udaletxean, 2002-IX-27an, VI. Jagon Jardunaldiak; ezkerretik eskuinera: Piarres Charriton, Andres Urrutia, Jean Haritschelhar, Xabier Itzaina eta Jean-Louis Davant.

1. Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren agurra, Euskaltzaleen Biltzarraren mendurrena dela eta.
2. Andres Urrutia Jagon sailburuak, VI. Jagon Jardunaldien aurkezpena: "Dugun atxik eskuara".

3. Mikel Erramuzpe, irakaslea: "Euskara Iparraldeko egungo elizkizunetan".
4. Xabier Itzaina, CNRSeko ikerlea¹: "Eliza eta euskalzaletasuna: bost ikuspegi".
5. Jean-Louis Davant, euskaltzaina: "Euskarak Iparraldeko elizkizunetan duen lekua-
ren aurrean zer?".
6. Piarres Xarritton, euskaltzaina: "Eliza eta Estatua Euskal Herrietan".
7. Elkarrizketa.

Jardunaldietan izan direnei karpeta banatu zaie egitarauarekin eta hitzaldien laburpe-
nekin. Guztira, 65 partaide izan dira bertan.

¹ CNRS (Centre National de la Recherche Scientifique).

III. Erakunde zerbitzuak

III. ERAKUNDE ZERBITZUAK

Batzorde eta lantaldeen bidez dihardu Euskaltzaindiak bere jarduera akademikoan eta langintza horien emaitzak giza baliabide eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzaten dira. Herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira zerbitzu hauek.

III.1. EGOITZA ETA ORDEZKARITZAK

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak bere egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta kokatzen dira eremu honi lotuta dauden zerbitzuak: Argitalpen eta Banaketa Zerbitzua, Batzordeen Koordinazio Teknikoa, Prentsa eta Komunikazioa, Informatika, Azkue Biblioteka eta Kontularitza. Egoitzan kokatzen da Akademiaren Zuzendaritza ere. Garrantzi berezia dute jendearekiko harremanek: hizkuntzarekiko kontsultek, ziurtagirieki eta talde-bisitek, besteak beste. Hauek bai egoitzatik eta baita ordezkaritzetatik bideratzen dira.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoz, Bilboko egoitzaz gainera, Euskal Herriko beste lau hiriburutan kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkaritzak.



Donostian, ordezkaritzan, 2002-X-25ean, Euskaltzaindiko lan-bilera; ezkerretik eskuinera: Gema Insausti, Itziar Rekalde eta Bego Amundarain.

Bestetik, tarteka-marteka, langileen arteko koordinazioa hobetzeko asmoz, bilerak egin dira. Honi begira, 2002. urtean, urriaren 25ean, Donostiako ordezkaritzan, Euskaltzaindiko egoitzako eta ordezkaritzetako langileen arteko bilera egin da. Denen buru, Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea; ordezkaritzetatik, hauek izan dira: Annie Etxeberri, Baionakoa; Maixa Goikoetxea, Gipuzkoakoa; Gema Insausti, Nafarroakoa; eta Itziar Rekalde, Arabakoa. Egoitzatik hauek izan dira: Lutxi Alberdi, Begoña Amundarain, Resu Orbe, Pruden Gartzia, Iñaki Kareaga eta Pello Telleria.

Ordezkapenak

Bilbo, Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko bulegoetatik koordinatzen dira lurralde bakoitzean euskararekiko egiten diren ekintza garrantzitsuenak eta, hala deitua denean, Erakundearen lekukotasuna ematen da bere ordezkarien bidez. Agerpen hauek *Oroitidazki* honen I. atalean azaltzen dira.


Jendaurreko zerbitzuak

Bost bulegoetara etortzen diren hiritarren eskabideak (ponte-izen eta deituren ziurtagiriak eginez, gehienbat, baina baita ere euskararekiko beste gai ugari aztertuz) etengabe erantzuten dira. Aurten, egoitzan bakarrik, 124 ziurtagiri egin dira izen-deiturenak eta 43 deiturenak. Horrezaz gain, egunero-egunero telefonoz edota posta elektronikoz jasotzen dira kontsulta anitz.

Bestalde, interneten bidez, www.euskaltzaindia.net helbidean, 67.824 bisita izan dira Euskaltzaindiaren webgunean.

Erakundearen bilerak

Arrunki, Bilbon egin ohi dira hileroko osoen bilkurak eta Zuzendaritzakoak, nahiz eta Donostiako ordezkartzan ere tartekatzen diren. Aurten, berriz, hiru osoko bilkura egin ditu Euskaltzaindiak Bilbon eta beste bi Donostian. Besteak ondoko herrietan izan dira: Durangon, Arantzazu-Oñatin, Hendaian, Tuteran, Eibarren eta Laudion.



Arantzazun, 2002-VII-18an, euskaltzainak osoko bilkura-egunean; ezkerretik eskuinera: Andres Iñigo, Henrike Knörr, Jose Mari Satrustegi, Xabier Kintana, Beñat Oihartzabal, Miren Azkarate, Andolin Eguzkitza, Patxi Altuna, Piarres Charriton, Jean Haritschelhar, Pello Salaburu, Txomin Peillen, Patxi Ondarra, Andres Urrutia eta Juan Mari Lekuona.

Donostiako ordezkartzan ere bildu dira batzorde hauek: Gramatika, Herri Literatura, Literatura Ikerketa eta *Jagon* saileko Corpus eta Hiztegi Batuko eta Euskalkien lantaldeak. Argitalpen eta Azkue Biblioteka batzordeak eta Ekonomia, Literatura Ikerketa eta

Exonomastika azpibatzerdeak Bilbon bildu dira. Onomastika batzerdea Iruñean, Gasteizen, Bilbon, Donostian eta Ermuan bildu da. Jagon saileko Sustapen batzerdea Bilbon, Donostian eta Iruñean bildu da. Baionan eta Bilbon, ordea, Atlasgintza batzerdea bildu da.

Denetara, 154 bilera egin dira 2002. urtean zehar.

Zuzendaritza

Gutxienez hilean bitan biltzen da. Idazkariordeak antolatzen du kudeaketa dagokien kargudunekin. Erakundearen gobernu, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardunbidearen agintea eta erantzukizuna dagozkio Zuzendaritzari.

Batzorde eta egitasmoen koordinazio zerbitzua

Eragile teknikaria arduratzen da egitasmo eta batzerde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan hauen guztien berri ematen die Idazkariorde-kudeatzaileari, Zuzendaritzari eta, ezarritako epeetan, dagozkien Herri Administrazioei, behar diren txostenak prestatuz.

Herri Aginteekin sinatutako Hitzarmenaren arabera, Batzerde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere eragile teknikariak burutzen ditu.

Euskaltzaindiko Informatika eta Telekomunikazio zerbitzua

Hauek izan dira informatika eta telekomunikazio arloetan egindako lan nagusiak:

- Mantenu lanak: 2002. urtean zehar 581 mantenu intzidentzia gertatu dira guztira. Sailkapena:
 - Laguntza teknikoa eman erabiltzaileei (% 30,81).
 - Instalazio, hobekuntza eta konfigurazio lanak (% 19,45).
 - Matxurak eta ustegabekoak (% 18,76).
 - Internet zerbitzuak (% 13,60).
 - Ezohiko zeregin informatikoetan laguntzea (% 11,88).
 - Birusen kontrako ekintzak (% 3,61).
 - Informatika-segurtasuna (% 1,89).
- Informatizazio egitasmoak:
 - EITZER 2001 txostena, hots, Euskaltzaindiko Informatika eta Telekomunikazio Zerbitzuaren definizioa (*Euskera*, 2001-2).
 - Euskaracorpora.net zerbitzua abiaraztea Interneten.
 - Hiztegi Batua. Oinarrizko etiketatzea.
 - Ordezkaritzen eta egoitzaren arteko telekomunikazioa hobetu: WAN sarea.
 - Euskaltzaindiko OCR zerbitzua, hau da, dokumentuak digitalizatzeko era bat, martxan jarri.
 - Euskal Onomastikaren Datu-basea. Datu-bilketa: Getxoko toponimia.
 - Intranetaren baitan zerbitzu berriak martxan jarri: Azkue Bibliotekako katalogoa, Euskaltzaindiko Prentsa Artxibo Informatikoa (EPAI).
 - Nafarroako Gobernuarekiko hitzarmena: EHHako audioen edizioa.
 - Euskaltzaindiko datuen babes plana: zirriborroa.
 - Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroa: Webgune dinamikoen programazioa.
 - Zerbitzari nagusiaren eguneratzea: Windows NTtik Windows 2000ra migrazioa.
 - Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan Euskaltzaindiaren teknologia berrien aretoa antolatu.

Horrez gain, otsailean, Euskaltzaindiko Informatika Zerbitzua berriztatu egin da. Zerbitzu honek bi gela ditu: bata, tresneriarena eta, bestea, Zerbitzu arduradunaren bulegoa.

Prensa eta Komunikazio zerbitzua

2000. urtean sortutako zerbitzu hau, urte honen amaieran egituratu da. Helburuak hauek dira: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzeko asmoz, gizar-teak Akademiaren jardunaren berri izatea, batetik eta, bestetik, Akademiak, elkarlanean, beste erakunde eta elkarterekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri ematea. Lau ataletan biltzen dira zerbitzu horren egitekoak:

- Prentsa: prentsaurrekoen programazioa eta antolaketa; prentsaarekiko arreta; prentsa dossierra eta artxiboa.
- Erakundearen beraren hedapena: euskaltzainen curriculumak egitea eta eguneratzea; erakundearen eta egoitzaren historia laburra idaztea
- Hemeroteka eta webgunea: prentsako erreferentziak jasota, sistematikoki sailkatzea; Euskaltzaindiaren Prentsa Artxibo Informatikoa (EPAI) egitea; webgunearen albisteak eguneratzea, eragile teknikariarekin eta informatika teknikariarekin batera.
- Komunikazioa: Egoitzan bertan edota Euskaltzaindiaren kanpo-ekintzak direla eta, sortzen diren harremanen komunikazio-ardura; biltzar, jardunaldi eta antzerako ekintza akademiko nagusien komunikazio ardurak.

Aurten, Andolin Eguzkitza euskaltzainaren sarrera-hitzaldia Santurtzin, Nafarroako Gobernuarekiko hitzarmena, Astarloa euskalariaren 250. urteurrena Durangon, Arantzazuko Frantzizkotarren 500. urteurrena, Hendaian burutu diren VI. Jagon Jardunaldiak, XIII. Herri Literatura Jardunaldiak Eibarren eta Federiko Belaustegigoitia idazlearen omenaldia Laudion, izan ditu, egoitzatik zuzenean kudeatutakoez landa, esku artean prentsa zerbitzu honek.

Aretoen erabilera

Egoitzako eta Gasteizko ordezkartzako aretoak kultura erakunde eta elkarteei irekita egon dira euskararen inguruko gaiez, hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurrekotarako. Euskaltzaindiak berak antolatu dituenez gain, 2002. urtean, egoitzan, hamabi erakunde eta elkartek erabili dute aretoa.



Egoitzan, 2002-1-9an, Iñaki Gamindek egindako Arrieta barbarik berba eta Jatabe barbarik berba liburuen aurkezpena; ezkerretik eskuinera: Jose Ramon Bilbao, Edurne Torrealdei, Jose Antonio Arana Martija, Gotzon Lobera eta Joseba Koldo Alzaga.

Atal honen barruan aipamen berezia merezi du Bilbo Zaharra Forum izeneko ekimenak. Izan ere, urriaren 29an, Euskaltzaindiak eta Bilbo Zaharra euskaltegiko Forumek kultura jarduerak bultzatzeko eta sustatzeko hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horren ondorioz, Bilboko hirian, euskal kultura sendotu nahian, bai eta indarrak batze aldera ere, elkarlanean jardun dute bi erakundeok. Bilbo Zaharra Forum, euskal literatura eta kulturaren inguruko gaiak jorratzeko, aipatu euskaltegiak antolatutako topagunea dugu. 2002. urtean, *Euskal kulturaren ajeak eta literatura* izenburupean, ziklo berri bati hasiera eman dio euskaltegiak, hitzarmenaren ondorioz, Forumek antolatutako ekitaldiek Akademia laguntzaile izango dutelarik eta egoitza akademikoa hitzaldion kokagune.



Egoitzan, 2002-X-29an, Bilbo Zaharra Forum eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren aurkezpena; ezkerretik eskuinera: Peru Alberdi eta Jose Luis Lizundia.

Euskal kulturaren ajeak eta literatura deituriko ziklo horren barruan, ondoko hauek izan dira: urriaren 31n, Koldo Izagirre idazleak "Menperatuon idazketa" gaiaz hitz egin du; azaroaren 28an, Anjel Lertxundi "Euskal kulturaren ajeak eta literatura" gaiari buruz mintzatu da; eta abenduaren 12an, Iñaki Lasak ipuin-saioak eskaini ditu, goizez eta arratsaldez.

Talde bisitak

Euskaltzaindiak, euskararen erakunde lehena den aldetik, euskal gizartearengan jakinmina sortzen du eta, horregatik, hainbat elkartetatik eta ikastetxetatik gerturatzen dira Akademiaren jarduera bertatik ezagutzeko. Hala bada, 2002. urtean, egoitzan, 4.008 bisitari izan dira.

Donostiako ordezkariak

Gipuzkoako ordezkarietan biltzen dira, hileroko, batzorde hauek: Gramatika, Literatura Ikerketa eta Herri Literatura. Erakundearen Zuzendaritzak ere maiz egiten ditu bere bilerak bertan eta baita ere osokoen hileroko bilkurak.

Eusko Jaurlaritzak sortutako EIMA, Euskal Ikasmaterialetako Hizkuntzaren Egokitasun-irizpideak emateko aholku batzorde teknikoko kideek bere bilerak egin ditu

ordezkaritzaren bulegoan eta baita BBK-Euskaltzaindiaren literatura sarien epaimahakideek ere.

Kardaberazen mendeurreneko ospakizunak prestatzeko, Deustuko Unibertsitate eta Hernaniko Udaleko ordezkariak bildu dira Donostiako bulego honetan.

Aipatu behar da bertan kokatzen dela JAGONET zerbitzua, hizkuntza kontsultak interneten bidez eskaintzen dituen.

Gipuzkoako ordezkariak, Akademiaren izenean hainbat ekitalditan parte hartu du, Memoria honen I. atalean azaltzen den bezala.

Gasteizko ordezkariak

Erakundearen azpiegiturari dagozkion eginkizunak kanpo, azpimarratu behar da Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker, bulego honetan diharduen Toponimia lantaldea eta horren inguruan sortu den lana: Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzutik, hiriburuko udaletxetik eta beste herrietatik egindako hainbat kontsultari ere erantzun zaie eta baita ikerlariei ere:

- Gasteiz hiriko zenbait auzo: *Ariznabarra, Oreitiasolo, Judimendi, Olarizu eta Zabalzana: Ehari eta Armentiako* toponimo guztiak. Txostena prestatu eta Udaletxean aurkeztu.
- *Iruña Oka* Udalariko dagozkion herrietako toponimia txikia.
- *Bilodako* toponimia txikia.
- *Olabarriko* toponimia txikia.
- *Langraizko* toponimoak.
- *Zuia, Barrundia, Donemiliaga. Kuartango eta Antezana* eskualdeetako herrien izenak
- Zenbait toponimo solte.

Gasteizko Udalbarrutiaren toponimia dela eta, *Aretxabaleta, Gardelegi, Armentia, Arriaga, Berroztegieta, Gaztelu, Ehari, Eskibel, Lasarte, Mendiola, Monasterioguren* eta Gobeoko herrietako Kontzejuburuekin harremanak sortu dira eta, hauen bidez, herri bakoitzeko lekukoak aurkitu dira tokiko toponimia finkatzeko eta mapetan kokatu ahal izateko. Toponimia lantaldeak egiten dituen ikerketak Onomastikari dagokion atalean aipatu da.

Lurralde honetako zortzi ikastetxe eta institutuko ikasle taldeak bisitatu dute Euskaltzaindiaren ordezkariak hau, Akademiaren historia eta oraingo jardueren berri izateko.

Arabako ordezkariak herrialde honetan egin diren kultur ekitaldietan parte hartu du, I. Atalean azaltzen den bezala.

Iruñeko ordezkariak

Ordezkaritza honetan egin dira Lizarran eta Reno-Nevadan ospatutako Onomastikako IV. eta V. Jardunaldien Agirien informatizazioa eta dagozkien zuzenketak. *Aibar, Añorbe, Eslaba, Donamaria, Ziritza* eta beste herri batzuetako toponimiari buruzko lanak eskaneatu dira.

Onomastika eta toponimiari buruzko kontsultak erantzun dira, hala nola:

- Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzatik, Atlas-i buruzkoak.
- *Arazuriko* Depuradoratik, euskal eremu eta eremu mistoko herrien euskal grafiaz.
- *Irunberri, Zangoza eta Orkoien* herrien izenaz eta kale izendegiaz.
- "Cámara de Comptos"-en euskal ordainaz, erakundeak berak.
- Nafarroako Erregistro Zibiletatik hainbat izen eta deituraren kontsultak jaso eta erantzun dira.

- Euskaltzaindiko argitalpenen eskaintza berezia Nafarroako ikastola, ikastetxe, eskalategi, teknikari eta euskalgintzan diharduten hainbat laguni eskaini zaie.

Corpus batzordeko lantaldeko kideei, bileretarako beharrezko dokumentazioa banatu zaie ordezkarietatik.

Baionako ordezkarietza

2002ko otsailaren 19an Errepublikako Elkarte legearen arabera bildu da Baionako ordezkarietza Euskaltzaindia Elkartearen urteko bilkura orokorra. Hor ziren: J. Haritschelhar, P. Charriton, E. Larre, B. Oihartzabal, euskaltzainak; P. Andiazabal, euskaltzain ohorezkoa; G. Alfaro, E. Bachoc, J. Camino, L. Etxezaharreta, R. Idiart, M. Itzaina, R. Camblong, M. Pagola, X. Videgain, urgazleak; A. Arkotxa, A. Dufau eta A. Etcheverry, idazkaria. 2001ean egin lanen eta urratsen kontua egin da. Laburbilduz hauek izan dira gaiak:

- Nafarroa Behereko herri izendegiaren prestaketa.
- Pedro de Yrizar-ek eskualde bereko aditz laguntzaileen forma berezietan prestatu bi liburukien argitalpena.
- Iparraldeko toponimia egitasmoa kudeatzeko Garapen Kontseiluarekin euskaltzainburuak eta *Iker* sailburuak izandako harremanak.

Urte hastapenean bidali zaie Iparraldeko udalei eta enpresei beren diru-laguntzen helarazteko deia. Ohiko laguntzaileak jarraiki zaizkie beren urratsei, hots, enpresen artean, Aiherrako *Geroa*, *Eskulanak*, *Segi*, *TICEM*, *Loreki*; Hendaia *Sallaberry* eta *Sokoa*; Itsasuko Charriton EURL. Horrez gainera 27 udalek ere diruz lagundu dute Euskaltzaindia.

D mailako hizkuntz gaitasun agiria

Ekainaren 1ean eta 15ean idatzizko eta ahozko probak gainditu dituzte 75etarik 47 ikaslek, azterketa honen lehen txandan. Urriaren 5ean eta 12an bigarren txandako 27etarik 19k gainditu dute azterketa bera.

III.2. AZKUE BIBLIOTEKA

Azkue Bibliotekaren baitan bi alderdi bereizten dira: alde batetik zerbitzua, mota guztietako dokumentuak eskuratuz, antolatuz eta ikerleen eskura jarriz eta, bestetik, batzordea, zeinaren eginkizuna baita lan horiek zehaztea eta eskaintzea.

III.2.1. AZKUE BIBLIOTEKA ZERBITZUA

Biblioteka eta Artxiboa

Erabiltzaile kopurua: 738
Erabiltzaile berriak: 80
Eskaera bibliografiko arruntak: 1.042
Barne mailegu zerbitzua: 162
Erreprografia zerbitzua: 16.244

Dokumentazio eta Informazio zerbitzua

Ahozko kontsulta bibliografiko arruntak: 700 bat.
Idatzizko kontsulta bibliografiko bereziak: 179

Horietatik batzuk banako ikerlariak eginikoak dira eta beste batzuk erakunde, elkarte edo enpresaren batek eginikoak. Hauexek dira idatzizko kontsulta bereziak egin dituzten batzuk:

Euskal Herrikoak:

- AEK (Sopela)
- Argazki Press
- Baleuko
- EIZIE
- Eusko Jaurlaritza (hainbat biblioteka)
- Hondarrabiko Liburutegia
- Susa argitaletxea
- UEU

Estatu eremukoak

- Canal 3
- Editorial Santillana
- Editorial Vicens Vives
- Grupo Zeta
- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa
- Larousse-Vox
- Real Academia Galega

Bestalde, banako ikertzaileen kontsultak eta eskariak beste herrialde batzuetatik ere heldu dira: Aragoi, Katalunia, Galizia, Alemania, Suitza, AEB, Quebec, Mexiko, Txile, Argentina, Norvegia, Italia, etab.

Eskurapenak

1. Liburuak

	Aleak	Balioa
– Erosiak	327	9.162,89 €
– Dohainikoak / trukezkoak	363	
– Aldizkariak	48 (izenburu)	2.212 €
Orotara	738	11.374,89 €

2. Aldizkariak

Bizirik dauden 432 aldizkari.

Azkue Bibliotekako katalogazio zerbitzua

Aldizkarien katalogo bibliografikoa amaitu

Beste 400 aldizkariri dagozkien erregistroak gehitu edo zuzendu dira eta, hartara, aldizkarien katalogo bibliografikoa guztiz bukatuta geratu da. Guztira 1.905 aldizkari daude katalogoan.

Euskera agerkariaren katalogazio analitikoa

Hau izan da urte honetako zeregin nagusietariko bat, hots, Euskaltzaindiaren agerkari ofizialeko artikulua eta testu autonomo guztiak exhaustiboki arakatzea eta katalogatzea, Azkue Bibliotekako Katalogoan integratuz. Horren bitartez, edozein erabiltzailek jakin ahal izango du zeintzuk diren eta non dauden argitaratuta Euskaltzaindiaren adierazpenak, arauak, gomendioak, irizpenak, etab.

Aurten 1956-2002 aldia bukatu da, guztira 3.128 sarrera eginez. Une honetan internet bidez kontsulta daitezke ABKn, oraingoz zuzenketa franko egin behar badira ere. Hemendik aurrera, espero dugu falta den zatia (1919-1955) burutzea eta, lan horren segida natural gisa, Euskaltzaindiaren argitalpen guztiak exhaustiboki arakatzea eta zuzentzea.

Jasotzen diren funts berri arruntak katalogatu

Urte honetan 1.071 dokumentu berri katalogatu dira. Kontuan hartu behar da, egoera ekonomiko bereziaren ondorioz, inoiz baino liburu gutxiago erosi ahal izan dela.

Prekatalogatu

Bestetik, 1.035 monografia prekatalogatu dira (tesiak, ikerlanak, B mailako lanak eta separatak) eta Azkue Bibliotekako Katalogoan txertatu.

Azkue Bibliotekaren Artxiboa (ABA)

Egitasmo hau aurten sortu da, ABKren jarraipen eta osagarri gisa. Bere helburua, Azkue Bibliotekan zaintzen diren artxibo historiko guztien katalogoak egitea da eta ikerleen kontsultagai jartzea, internet bidez, Euskaltzaindiaren web gunean, ABKren ondoan.

Hasteko, Resurreccion Maria Azkueren artxiboa (ABA / RMA) hautatu da. Aurten osorik taxutu da eta neurri handi batean katalogatu, 90 kutxa osatuz eta 918 erregistro eginez.

Dagerre egitasmoa (DAG)

Izen horrekin² bataiatu da Azkue Bibliotekan egiten diren digitalizazio-lanak. Aurten, lan puntualak alde batera utzirik, *Lacombe* ondarearen 195 dokumentu digitalizatu dira, horretarako 227 CD erabiliz. Egitasmo hau pasa den urtean *Olaso Dorrea Sorrerakundearekin* sinatutako hitzarmenaren segida da.

Olaso Dorrea Sorrerakundea

Lehendik datorren elkarlaguntzari segida eman zaio, bereziki liburuen digitalizazioari dagokionez, baina baita ere bestelako alorretan.

² Louis Jacques Mandé DAGUERRE (1787-1851). Euskal jatorriko asmatzailea, Paris ondoan jaio eta Frantziako hiriburuan bizi izan zen. Haren izena argazkigintzaren historiari dago lotua, besteak beste "daguerréotype"-ren asmatzailea izan baitzen, hots, argazkiak egiteko antzinako prozedura bat. Haren oroimenez hautatu da izen hori digitalizazio-egitasmoarentzat.

III.2.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

Katalogazioa zuzendu eta osatu

Aurreko urteetan bezala, katalogatzerakoan sortzen diren arazoak aztertzen eta erabakitzen jarraitu du batzordeak. Ildo honetan, bereziki aipagarria da 21. katalogazio-erregelaren onartu dela: *Printze subirano eta antzekoen sarrera nagusia egiteko katalogazio-erregela*. Hiru zati ditu: lehenean, nazioarteko araugintza aztertzen da (puntu horri dagokionez); bigarrenean, euskararen beharretara egokitutako araua ematen da, eta hirugarrenean adibide-zerrenda luze bat; besteak beste, Nafarroako errege-erregina guztien euskarazko izenaren grafia eta forma zehazten da, eta, orobat, Espainiako eta Frantziako errege-erregina askoren; bukatzeko, Europako hainbat errege-erregina ere ematen da.

Orobat, sakon aztertu dira *Euskera* agerkariaren katalogazioak eragindako arazo katalografikoak, batez ere Euskaltzaindiaren pentsamendu korporatiboa islatzen dituen testu eta argitalpenei dagokienetan.

Bizirik dauden aldizkarien zerrenda

Pasa den urtetik zetorren hausnarketari segida emanez, beste bi txosten eztabaidatu eta onartu dira, horietan zehaztuz bai Azkue Bibliotekak jaso behar dituen aldizkariak erabakitzeko irizpideak, bai eta irizpide horien aplikazio praktikoa ere, hots, 315 izenburudun zerrenda.

Beraz, aldizkariak eskuratzeko politika erabakita geratu da eta, aurrerantzean, aldaketa txikiak baino ez dira egingo, non ez den sail berri oso bat zabaltzen, adibidez, aldizkari elektronikoekin.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekiko harremanak

Aurten ahaleginak egin dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin berariazko hitzarmena egiteko. Horren bitartez, batetik, Azkue Biblioteka batzordeak euskarazko katalogaziogintzan egiten duen lana Eusko Jaurlaritzaren biblioteka sistemarentzat baliagarri izan zedin eta, bestetik, ABSYS programa informatikoaren web bertsioaren akatsak eta arazoak konpontzeko, baina ez da gauzatu.

Horren ordez, Kultura Sailak, Espainiako Kultura Ministerioaren *Reglas de Catalogación* (1999) euskaratzea erabaki du, eta Azkue Bibliotekako Zuzendaria gonbidatu du itzulpen lan horretan parte hartzera, beste zenbait bibliotekarekin batera, onartu duelarik.

III.3. ARGITALPENAK

III.3.1. ARGITALPEN BATZORDEA

Argitalpen batzordearen eta Argitalpen Eragilearen gidaritzapean argitalpen hauek bideratu dira 2002. urtean:

1. *Euskera*, 2001, 2.

Euskaltzaindiaren batzar-agiri, erabaki, irizpen, sari, argitalpen eta adierazpenez gain, hauek dira gai nagusiak: Pierre Lafitteren omenezko jardunaldiak, *Nafarroa Oinez* dela-eta egindako ageriko bilkura, V. Jagon Jardunaldiak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Deustuko Unibertsitatearekin sinaturiko hitzarmenak. 627 orrialde.

2. *Euskera*, 2002,1.

Euskaltzaindiaren batzar-agiri, erabaki, irizpen, sari, argitalpen eta adierazpenez gain, hauek dira gai nagusiak: Andolin Eguzkitzaren Euskaltzaindian sartzea, Euskaltel-ekin Euskaltzaindiak egindako hitzarmena, Euskaltzaindiak Eusko Legebiltzarrekin egindako hitzarmena. Liburu honek 392 orrialde ditu.

3. *Euskaltzaindiaren ARAUAK*.

Hauek dira 2002an zehar, 3. karpetan, XX. eta XXI. sortetan argitaratu diren hizkuntza-arauak:

117. Hiztegi Batua: *abonamendu - agertze*

118. Hiztegi Batua: *agi - ahozuri*

119. Hiztegi Batua: *ahuakate - aitzitik*

120. Hiztegi Batua: *aitzur - aldaratu*

121. Hiztegi Batua: *aldarazi - alo*


122. Nafarroa Behereko herri izendegia (I)

4. *Euskaltzaindiaren 2001eko Oroitidazkia*

Liburu honetan, Akademiak urte horretan buruturiko ekintza eta lanen zehaztasunak ematen dira. Liburu horrek 294 orrialde ditu.

5. *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental*. Tomo III. (Estudio dialectológico).

Pedro de Yrizarrek paratua. Nafarroa Behereko herri hauetako aditza aztertzen da: Arberoa, Beskoitze, Urketa eta Zaraitzu. Hauek dira argitalpen honetarako diru-laguntza eman duten erakundeak: Euskal Herriko Unibertsitatea, Frantziako Errepublika, Akitania Eskualdea eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra. 426 orrialde.



Egoitzan, 2002-X-8an, Morfología del verbo auxiliar suletino (estudio dialectológico)ren aurkezpena; ezkerretik eskuinera: Koldo Artola eta Emilio Múgica.

6. Morfología del verbo auxiliar suletino (estudio dialectológico)

Pedro de Yrizarrek paratua. Zubereraren aditz-jokoa biltzen da liburu honetan. Hauek dira argitalpen honetarako diru-laguntza eman duten erakundeak: Euskal Herriko Unibertsitatea, Frantziako Errepublika, Akitania Eskualdea eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra. 328 orrialde ditu.

7. Haizearen hegaletan / Sobre las alas del viento

Yēhudah ha-Levi, XII. mendeko idazle tuterarraren poesia liburua da, Xabier Kintana euskaltzainak euskaratua. Liburuak hiru hizkuntza hauetan ematen ditu olerkari horren poesiak: hebreeraz, euskaraz eta gaztelaniaz eta E.H.U./U.P.V. babestu du.



Egoitzan, 2002-XII-19an, Haizearen hegaletan liburuaren aurkezpena; ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, Eyal Sela eta Xabier Kintana.

8. *Argitalpenen katalogoa / Catálogo de publicaciones / Catalogue des publications 2002.*

Euskaltzaindiak argitaratu dituen liburuen berri ematen da 312 orrialdeko katalogo honetan. Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez ematen dira azalpen guztiak. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak babestu du argitalpen hau.

9. *Euskal gramatika laburra*

Berrargitalpena, zenbait eranskin berriz hornitua.

10. *Narrazioak eta olerkiak 2001*

2001eko Azkue Saria jaso zuten 16 lanak biltzen dira 128 orrialdeko liburu honetan.



Egoitzan, 2002-VI-21ean, 2001ean saritutako lanen argitalpenen aurkezpena; ezkerretik eskuinera: Patxi Ezkiaga, Jurgi Kintana, Jose Ramon Bilbao, Sonia González, Alaitz Olaizola, Jean Haritschelhar eta Juan Mari Lekuona.

11. *Bigarren haurra*

Patxi Ezkiaga Lasa. 2001. urteko 'Txomin Agirre' eleberri saria; 144 orrialde.

12. *Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin*

Alaitz Olaizola Borda. 2001. urteko 'Toribio Alzaga' antzerki saria; 58 orrialde.

13. *Sagarroiak*


Sonia Gonzalez "Sumendi". 2001. urteko 'Felipe Arrese Beitia' olerki saria; 72 orrialde.

14. *Vizcaytik Bizkaira? R. M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919)*

Jurgi Kintana Goirieta. 2001. urteko 'Mikel Zarate' saio saria; 180 orrialde.

Ermua-Eitzaga: leku-izenak liburuaren aurkezpena

Maiatzaren 23an (Ermuko Udaletxean) eta 24an (Euskaltzaindiaren egoitzan) *Ermua-Eitzaga: leku-izenak* liburua aurkeztu da. Liburua Fernando Araberrik egina da eta Euskaltzaindiak argitaratu du Ermuko Udalaren eta Bizkaiko Diputazioaren diru-laguntzei esker, Onomastika Vasconiae sailean, 22. zenbakiarekin.



Egoitzan, 2002-V-24an, Ermua-Eitzaga: leku-izenak liburuaren aurkezpena; ezkerretik eskuinera: Mikel Gorrotxategi, Mari Asun Ardanza, Carlos Totorika, Fernando Aranberri eta Henrike Knörr.

III.3.2. ARGITALPENEN BANAKETA ZERBITZUA

Argitalpen salmenta

Euskaltzaindiak argitalpenen hedapen-salmenta banatzaileen bitartez egiten du, gehienbat. Hala ere, *Euskaltzaindiaren Arauak* eta *Euskera* agerkariaren kasuetan, harpidetza sistema erabiltzen du eta, ondorioz, argitalpen zerbitzuaren bezeroekiko harremana zuzenagoa izaten da.

Euskaltzaindiaren Arauen harpidedunak, 2002. urte bukaeran, 2105 izan dira, eta *Euskera* agerkariarenak, berriz, 367. Gainerako argitalpenei dagokienez, liburudendei 50 ale saldu zaizkie, banatzaileei 5.000 eta gizabanako eta erakunde desberdinei 706.

Ohiko salmentekin eta *Arauen* zein *Euskera* agerkariaren harpidetzekin lortutako diru-emaizta 108.237 €koa izan da, iaz baino 16.283 € gehiago.

Merkataritza ikuspegia

Liburudendei eginiko salmentak, gutxi gorabehera, bere horretan mantendu dira. Ostera, gizabanakoei eginikoek behera egin dute, banatzaileei eginikoek gora egin duten bitartean. Hau da horren zergatia: azken urteetan ez bezala, urte honetan egin diren eskaintza bereziak ez dira gizabanakoengana (Arauen harpidedunak, adibidez) zuzendu. Batik bat, elkarte, erakunde eta banatzaile enpresetara zuzendu dira, *Abarka* eta *Zabaltzen*, kasuko.

Bi urte dira Euskaltzaindiak bere webgunea sortu zuela. Teknologia berrien garapenari esker, Akademia honek ere bere webgunea berriztatu egin du urtearen amaieran. Hobekuntza honek prentsa espezializatuan kritika ona izan du, eta, bestalde, internet bidez jaso diren argitalpen-eskaerak nabarmen igo dira berrikuntza horri esker. Hain zuzen, bertan, Euskaltzaindiaren argitalpenen katalogoa ikusi eta eskariak egin daitezke, alegia, jar-tza@euskaltzaindia.net helbidera joz.

Argitalpenik salduenak *Euskera 2000, 2 (Hiztegi Batua)* eta *Euskal Izendegia* izan dira eta trukezko harremanetan 566 ale banatu dira.

Azokak

Durangoko XXXVII. Euskal Liburu eta Disko Azoka, abenduaren 4, 5, 6, 7 eta 8an izan da eta bi eremutan aritu da Euskaltzaindiaren argitalpen zerbitzua: batetik, ohiko saltokietan Akademiaren argitalpenak erakutsi dira eta, bestetik, teknologia berrien aretoan webgune berriztatua erakutsi zaie bisitariei.

Beste zenbait azoka:

Euskal Herrian egin diren beste zenbait liburu eta disko azokatar, Akademiaren argitalpenak banatzaileen bitartez eramanez dira, batez ere alor honetan aritzen den *Abarka* enpresarekin eginiko kudeaketan ondorioz. Hiriburuetan, Ondarroan, Lekeition eta Zarautzen izan dira azoka garrantzitsuenak.

Gordailua

Euskaltzaindiak Etxebarri herrian duen gordailuak bi xede nagusi izan ditu, hots:

1. Argitalpenen gordailua

- Salgai dauden argitalpenen gordailu izatea, ohi bezala.
- 2002. urtean zehar, salgai egon diren argitalpen guztien inbentarioa zehaztearekin eta argitalpenen kokatze- eta berrantolatze-lanekin jarraitzea.

2. Artxiboa

Erakundearen artxiboak, betetzen duen funtzioaren arabera, bi alor ditu:

- Barneko artxiboa: Euskaltzaindiak, urteetan zehar bildu, landu eta ekoitzi duen dokumentazio-sailkatua gordetzeko erabiltzen dena.
- Kanpoko artxiboa: Euskaltzaindiak izandako harremanengatik kanpoko erakunde, elkarte, talde eta abarri erosiz, trukatu zein dohainik jasoz, bildu diren material sailkatuen gordetgia da, hots, liburuak, aldizkariak, egunkariak, posterrak eta abar, gordetzeko erabilia.

IV. Aurrekontuak

IV.1. BALANTZEA

GASTUAK	2.769.317,70
1. Ibilgetu materiala	1.930,70
2. Kanpo zerbitzuak	495.981,00
Ohiko argitalpenak	77.988,00
Egitura gastuak	93.084,00
Egitura batzordeak	4.448,00
Ordezkaritzak	56.444,00
Alokatzeak	8.248,00
Konponketak eta zaintzeak	68.836,00
Zerbitzu profesionalak alokatzea	39.830,00
Bidalketak	11.152,00
Aseguruak	5.389,00
Banku zerbitzuak	6.161,00
Zabalkunde gastuak	39.874,00
Horniketak	78.344,00
Bestelako zerbitzuak	6.183,00
3. Batzorde eta egitasmoak	670.446,00
Euskara Batua	2.592,00
Hiztegi Batua	19.675,00
<i>Orotariko Euskal Hiztegia</i>	356.325,00
Gramatika	13.343,00
EHHA (Hizkuntza Atlas)	153.456,00
Onomastika	19.797,00
Herri Literatura	11.849,00
Literatura Ikerketa	14.033,00
<i>Jagon-Corpus</i>	8.799,00
<i>Jagon-Sustapen</i>	909,00
Azkue Biblioteka	69.668,00
4. Egitasmo bereziak	516.889,00
JAGONET	24.963,00
Gasteizko toponimia	84.864,00
Udal Izendegi Orokorra	32.760,00
UZEI-ren hitzarmena	232.380,00
Barrendegiak (<i>Trebiñu</i>)	21.613,00
Bizkaiko Toponimia	14.154,00
Onomastika datubasea	2.919,00
Argitalpen bereziak	103.236,00
5. Zergak	1.244,00
6. Gizabanakoen ordainketak	891.195,00
7. Beste zenbait gestio gastu	13.063,00
8. Finantza gastuak	30.993,00
9. Bestelako gastuak	467,00
10. Amortizazio zuzkidurak	147.109,00

SARRERAK		2.652.842,86
1. Salmentak		107137,00
2. Ustiaketarako laguntzak		2.036.465,29
Hezkuntza Ministerioa	450.579,00	
Eusko Jaurlaritza	1.016.833,35	
Nafarroako Gobernua	82.740,64	
Arabako Foru Aldundia	58.517,82	
Bizkaiko Foru Aldundia	177.016,43	
Gipuzkoako Foru Aldundia	117.140,14	
Iparraldeko Herri Aginteak	128.680,00	
Udalak	4.957,91	
3. Laguntza helburutuak		276.394,72
Herri Aginteek (UZEL)	202.329,10	
Gasteizko Udala (Toponimia)	60.100,00	
Bestelako laguntzak	8.215,62	
Argitalpenetarako laguntzak	5.750,00	
4. Kudeaketa sarrerak		96.652,00
Zerbitzu desberdinak	76.927,00	
Hitzarmenak	19.725,00	
5. Sarrera finantzarioak		1.483,00
6. Aparteko sarrerak		134.710,85
7. Sarrera diferentzia		116.474,84

V. Herri Administrazio eta erakundeekikoak

V. HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEEKIKOAK

V.1. EUSKO JAURLARITZA ETA HIRU DIPUTAZIOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariarekin

Euskaltzaindiaren egoera ekonomiko larria dela eta, uztailaren 19ko osoko bilkuran, Euskaltzaindiak Juan Jose Ibarretxe Lehendakariari elkarrizketa eskatzea erabaki du. Horren harira, irailaren 5ean bildu da Zuzendaritza Lehendakariarekin. Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Lehendakariarekin batera Miren Azkarate Kultura sailburua izan da. Lehendakariak, Euskaltzaindiari egoera horretatik irteten laguntzeko borondatea azaldu du eta, geroari begira, gainerako administrazioekin batera oinarri eta izaera sendoagoak jartzearen premia adierazi.



Gasteizen, Ajuriaenean, 2002-IX-5ean, Zuzendaritzak Lehendakariari egindako bisita; ezkerretik eskuinera: Juan Jose Zearreta, Andres Urrutia, Juan Jose Ibarretxe, Jean Haritschelhar, Miren Azkarate, Xabier Kintana, Beñat Oihartzabal eta Henrike Knörr.

Errendapen-txostenak

Zuzendaritzaren urtarrilaren 24ko bileran, 2001.eko 4. hiruhilabeteko honako errendapen-txostenak aurkeztu ditu Pello Telleria eragile teknikariak: Orotariko Euskal Hiztegia, Hiztegi Batua eta EEBS (UZEI), Trebiñuko Herri Izendegia (I), Euskararen Herri Hizkeren

Atlasa, Literatura Hiztegia eta Azkue Biblioteka katalogatze-lana. Txosten hauetan bi egitasmo berri hauen informazioa txertatu da: batetik, Onomastika batzordearen egitasmoen barruan Elena Martínez de Madina eta Zuriñe Rescalvo ikerlariak landutako Trebiñuko herri-izendegiaren bi azpieskualdeak, eta bestetik, Literatura Ikerketa azpibatzerdeko idazkari den Lourdes Otaegik Literatura Hiztegia prestatzeko hasitako lana.

Eragile teknikariak 2002ko apirilaren 18ko Zuzendaritzaren bileran aurkeztu ondoren, Herri Aginteei bidali zaie batzorde eta egitasmo hauek iaz egin zuten lana biltzen duen txostena: Hiztegi Batuko lantaldea, Gramatika batzordea, Onomastika batzordea, Literatura batzordea (Literatura Ikerketa azpibatzerde eta Herri Literatura azpibatzerde), Euskara Batuko batzordea, Corpus batzordea, Sustapen batzordea, Argitalpen batzordea, Azkue Biblioteka batzordea eta *Hitz-elkarketa / 2* liburuaren prestaketa.

Azaroan, eragile teknikariak prestatutako 2002ko lehen sei-hilabeteko errendapen-txosten hauek aurkeztu dizkio Zuzendaritzari eta EAEko Hitzarmeneko Batzorde Teknikoari bidali: Orotariko Euskal Hiztegia, Hiztegi Batuko lantaldea, UZEI (Hiztegi Batua eta EEBS), Gramatika batzordea, Dialektologia batzordea (Atlasa), Onomastika batzordea, Barrendegien Izendegiak (II) (Trebiñu eta Villaverde Turtzioz), Literatura Ikerketa eta Herri Literatura azpibatzerdeak, Euskara Batuko batzordea, Corpus batzordea, Sustapen Batzordea, Argitalpen Batzordea eta Azkue Biblioteka.

Jarraipen Batzordearen bilerak

Herri Aginteei eta Euskaltzaindiak sinatua duten Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea martxoaren 11n bildu da Eusko Jaurlaritzan. Administrazioen aldetik hauek izan dira: Miren Azkarate, Kultura sailburua; Patxi Goenaga, Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Pedro Sancristóval, Arabako Kultura diputatua; Gotzon Lobera, Bizkaiko Euskara zuzendaria eta Luis Mari Bandres, Gipuzkoako Kultura diputatua. Euskaltzaindiaren aldetik, Jean Haritschelhar euskaltzainburua, Henrike Knörr buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Jose Antonio Arana Martija diruzaina, Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzailea eta Juan Jose Zearreta ekonomia eragilea.

Hauek izan dira aztergai nagusi: Eusko Jaurlaritzaren Nafarroako Gobernuaren, Foru aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaren egoera; hitzarmen horren 2002ko protokoloa; egoeraren ondorioz, orain arte indarrean egon den hitzarmen amankomunaren etena, Nafarroako Gobernuaren banatu baita; eta EAEko lau herri-aginteekin hitzarmenaz lehen urratsak ematea.

Abenduaren 9an ere, Eusko Jaurlaritzan, EAEko Herri Aginteei Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen bilera egin da. Euskaltzaindiaren izenean, Jean Haritschelhar, Beñat Oihartzabal, Andres Urrutia, Jose Luis Lizundia eta Juan Jose Zearreta izan dira. Herri Aginteen izenean, berriz, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Luis Mari Bandres, Pedro Sancristóval eta Gotzon Lobera. Bileran gai hauek izan dira hizpide: hitzarmen zaharretik berrira egindako ibilbidea eta 2003ko eranskina.

Batzorde Teknikoaren bilera

Maiatzaren 10ean, Donostian, Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkarietan, Herri Aginteen eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmeneko Batzorde Teknikoa bildu da. Administrazioen ordezkariak hauek izan dira: Koro Urkizu, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Joseba Erkizia, Gipuzkoako Diputaziokoak. Euskaltzainditik, Pello Telleria eragile teknikaria izan da. Euskaltzaindiko egitasmo eta batzordeen iazko errendapen-txostenak aztertzea izan da bileraren xedea.

Hitzarmen berriari begira

Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko lau Herri Aginteekin –Eusko Jaurlaritza

eta Foru Diputazioekin- hitzarmena eta aurtengo eranskina prestatzeko zenbait bilera egin dira. Nafarroako Gobernuaren aldetzea kontuan izanik, Euskaltzaindiak bi hitzarmen sinatu beharra ikusi da, bata Nafarroako Gobernuarekin eta bestea EAEko Aginteekin.

2002ko hitzarmena eta eranskina sinatu

Abenduaren 9an sinatu dira, Eusko Jaurlaritzan, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Aginteen eta Euskaltzaindiaren arteko 2002ko hitzarmen berria eta eranskina. Hauek sinatu dituzte dokumentuak: Miren Azkaratek, Pedro Sancristovalek, Luis Mari Bandresek, Ana Madariagak eta Jean Haritschelharrek.

Eusko Legebiltzarra

2002ko apirilaren 18an egin den ekitaldian, Juan Mari Atutxa Eusko Legebiltzarreko buruak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak sinatu duten hitzarmenaren bidez, Legebiltzarrak bere liburutegian zaintzen dituen euskarazko lanen kopia digitalizatuak Euskaltzaindiari eman dizkio. Funts bibliografiko hau 360 liburuz osatua da, gutxi gora behera, 31 CD eta bere baitan balio handiko lanak daude. Ondare hori guztia Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan txertatuko da, eta horrek adituen kontsulta ahalbideratuko du.



Gasteizen, Eusko Legebiltzarrean, 2003-IV-18an, euskarazko lanen kopia digitalizatua Euskaltzaindiari ematea; ezkerretik eskuinera: Juan Mari Atutxa, Jean Haritschelhar, Henrike Knörr, Xabier Kintana, Jose Antonio Arana Martija eta Beñat Oihartzabal.

Ekitaldi horretan Euskaltzaindiko Zuzendaritzak parte hartu du, eta baita hauek ere: Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak, Juan Jose Zearreta ekonomia eragileak eta Pruden Gartzia Azkue Bibliotekako zuzendariak. Legebiltzarreko Mahaiak parte hartu du: Juan Mari Atutxa jaunaz gain, Gorka Knörr, EAKoak; Manuel Huertas, Socialistas Vasco-ekoak; Carmelo Barrios, PPkoak; Kontxi Bilbao, Ezker Batukoak; Eduardo Mancisidor, lege-

lari nagusiak; Andoni Iturbe, bibliotekariak eta Elena López de Aretxabaleta, Legebiltzarreko protokolo arduradunak.

Bizkaiko Diputatu Nagusiarekin

Martxoaren 5ean, Josu Bergara Bizkaiko diputatu nagusiarekin bildu da Euskaltzaindia, *Euskaltzaindiaren Alde Fundazioa*-ren sortzea dela eta. Euskaltzainditik hauek joan dira: Jose Antonio Arana Martija, diruzaina; Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea eta Javier Saizar *Fundazioaren*, gestioilea.

V.2. NAFARROAKO GOBERNUA

Hitzarmen berriari begira

Martxoaren 20an eta 26an bildu dira Euskaltzaindiko ordezkariak Nafarroako Gobernuako Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzakoekin. Hitzarmen zirriborroa jaso dute Euskaltzaindiko ordezkariak.

Hitzarmena sinatu

Ekainaren 27an sinatu da Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmena, bi erakunde horien artekoa bakarrik den lehena. Nafarroako Gobernuaren egoitzan sinatu dute Jesus Maria Laguna Peña, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura sailburuak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak.

Hitzarmenak lau urteko iraupena du eta urtero horri lotutako akordioak sinatuko dira. Erakunde bien arteko Jarraipen Batzordea izango da, hiruna kidez osatua. Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariak ere parte hartu ahal izango du. Bestetik, Batzorde Teknikoa ere sortuko da, erakunde horietako bina ordezkariak osatua.

Jarraipen Batzordearen bilerak

Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak sinatutako Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeko ordezkariak izendatu ditu Euskaltzaindiak: Jean Haritschelhar euskaltzainburua eta beronen proposamenez, ordezko, Henrike Knörr, buruordea; Xabier Kintana idazkaria eta ordezko, Andres Urrutia, Jagon sailburua; Jose Antonio Arana Martija diruzaina eta ordezko Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea eta Andres Iñigo Nafarroako ordezkari gisa.

Abenduaren 18an ere, Nafarroako Gobernuaren egoitzan, bildu da Jarraipen Batzordea. Euskaltzaindiaren izenean, Jean Haritschelhar, Andres Urrutia, Andres Iñigo eta Jose Luis Lizundia izan dira. Nafarroako Gobernuaren izenean, berriz, Pedro Pegenaute, Fermin Villanueva eta Julen Calvo. Bileraren xede nagusia, 2002. urteko eginkizunak aztertea izan da, horretarako Batzorde Teknikoak egindako txostenean oinarrituz.

2002ko eranskina

Azaroaren 6an, 2002ko Protokoloa sinatu da, Nafarroako Hizkuntza Politikarako egoitzan. Nafarroako Gobernuaren izenean, Pedro Pegenaute Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak sinatu du eta, Euskaltzaindiarenean, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak.

Nafarroako Gobernutik, Fermin Villanueva –Hizkuntza Politikako Zuzendaritzako Garapen eta Ikerketarako Zerbitzuko burua– eta Julen Calvo –ataleko burua– ere izan dira. Euskaltzainditik, baita ere, Andres Urrutia, Andres Iñigo eta Jose Luis Lizundia.

Batzorde Teknikoaren bilerak

Azaroaren 13an, Hitzarmeneko Batzorde Teknikoa osatu da eta, Foru Zuzendaritzaren Iruñeko egoitzan, egin du lehen bilera. Batzorde Teknikoa hauek osatzen dute: Adoración López eta Mikel Arregi, Nafarroako Gobernuaren aldetik. Ordezkoa Jose Andrés Alvaro da. Euskaltzainditik, berriz, Juan Jose Zearreta eta Pello Telleria, ordezkoa Gotzon Aurrekoetxea delarik.

Bestetik, abenduaren 10ean, Euskaltzaindiaren egoitzan, Batzorde Teknikoa bildu da. Bileraren xedea, idazkaria izendatzeaz gain, 2002ko eranskinean dauden egitekoen jarraipena izan da. Rudolph Trebitsch jaunak XX. mendearen hasieran Nafarroan egindako euskarazko grabazioen kopia eta horien transkripzioa (Vienako Fonogrammarchiv fonotekatik ekarria), OEHren corpusaren CDa eta Euskaltzaindiko batzordeen eta egitasmoen 2002ko lehen urte-erdiko lanen errendapen-txostena eman zaizkie Nafarroako Gobernuko ordezkariei.

V.3. ESTATU ADMINISTRAZIOA

Espainiako Administrazio Zentraleko Hezkuntza Ministerioaren Unibertsitate eta Ikerketen Estatu Idazkaritzan dago ofizialki kokatua Euskaltzaindia. Erret Akademiarentzako aurrekontu orokor bat dauka Ministerioak, nondik gauzatzen den gure Akademiarentzako diru-laguntza, Espainiako, Galiziako eta Kataluniako erakundeetako kideekin batera.

Hezkuntza eta Kultura Ministerioa

Apirilaren 19an, Andres Urrutia euskaltzaina eta Juan Jose Zearreta ekonomi eragile Madrilen izan dira, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioan. Pilar Barrero García andrearekin bildu dira eta bilerak bi xede izan ditu: 2001eko diru laguntzen kontu-errendapena ematea eta 2002. urterako diru-laguntzaren eskaria aurkeztea.

V.4. IPARRALDEKO HERRI AGINTEAK

Herri Aginteek, 2000. urtean egindako Euskal Herrirako Berriazko Hitzarmenean, Euskaltzaindiari euskararen ikerketan duen zeregina aitortzen zitzaion, eta, ondorioz, administrazio desberdinak beren laguntzak ematen hasiak dira Euskaltzaindiari.

Frantziako Errepublika

Euskaltzaindiaren eta Frantziako Errepublikaren arteko 2002ko hitzarmena sinatu da. Jean Haritschelharrek sinatu du Euskaltzaindiaren izenean eta Michel Berthod jaunak, Kultura Gaietako eskualde zuzendariak, Estatu frantziarraren izenean.

Akitania

Era berean 2002ko irailaren 25ean sinatu dute hitzarmena Euskaltzaindiak eta Akitania Herrialdeko Kontseiluak. Euskaltzaindiaren izenean Jean Haritschelharrek sinatu du eta Akitaniaren izenean Jean-Luc Mercadie jaunak, Akitaniako Zerbitzu zuzendari orokorrak.

Pirinio Atlantikoak

Uztailaren 1ean sinatu da 2002. urteari dagokion hitzarmena, Euskaltzaindiaren eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorren artean. Jean-Jacques Lasserre jaunak, Kontseiluko presidentek, sinatu du eta Jean Haritschelharrek Euskaltzaindiaren izenean.

V.5. UDALAK

EUDEL

Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) eta Euskaltzaindiaren arteko bigarren hitzarmenaren ondorioz, 2001eko uztailaren 11n sinatu zena, udalek seinalizatu behar dituzten izen toponimikoen arloan laguntza teknikoa ematen die Akademiak Toki Erakundeei.


Helburua honako hauxe da: udalei, kontzejuei eta mankomunitateei, industrialde, auzoberri, etxebizitza-poligono, naturgune, parke, atsedenleku, zerbitzugune, herri-baso eta bestelako izenei buruzko irizpenak egitea.

Iruñea

Urtarrilaren 31n, Andres Iñigo eta Andres Urrutia euskaltzainak Iruñeko Udaleko Kultura zinegotzia den Vicente Etayorekin bildu dira. Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenaz jarduteko.

Bilbo

Irailaren 17an, Bilboko Udaletxean, Euskaltzaindiaren eta Udal horren arteko lehen hitzarmena sinatu dute Iñaki Azkuna Bilboko alkateak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Euskaltzainburuaz gain, hauek ere izan dira: Henrike Knörr, Andres Urrutia, Xabier



Bilboko Udaletxean. 2002-IX-17an, Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lehen hitzarmena sinatzen; ezkerretik eskuinera: Iñaki Azkuna eta Jean Haritschelhar.

Kintana eta Jose Luis Lizundia. Udalaren aldetik, alkateaz gain, Jose Luis Sabas Kultura zinegotzia, beste zenbait zinegotzi eta Josejoa Gallastegi, Euskara Zerbitzu-burua.

Hitzarmen hori dela-eta, Euskaltzaindiak, Bilboko Plaza Barriko egoitzan herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuez gain, bestelako kultur ekintzak bultzatuko ditu. Sinatutako hitzarmenak dioen legez, "Orobat, kultur hedapenerako ekintzak, ikastaroak, hitzaldiak eta abar bultzatuko ditu Euskaltzaindiak lurralde honetan, dena delako instituzio eta erakundeekiko elkarlanean". Udalak diru-ekarpen bat zehaztuko du urtero, ohiko aurrekontuetan,

Gasteiz

Euskaltzaindiak, Gasteizko Udalarekin sinatua du hitzarmena, zeinetan hiriburu horretako ordezkartzan, udal-barruti osoaren herriz herriko toponimia ikertzen eta normalizatzen diharduen lantaldea –nagusiki– eta ordezkartzako herri zerbitzuak babesten dituen.

Donostia

Xalbador kalean, Donostiako Udalak duen eraikuntza bat erabiltzen du Euskaltzaindiak, 2001etik, egitasmo akademikoetarako. Une honetan Orotariko Euskal Hiztegiaren lantaldea dago bertan kokatua.

V.6. UNIBERTSITATEAK

V.6.1. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Uztailaren 17an, Leioako Campusean, Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko Jarraipen Batzordearen bilera egin da, Hitzarmen berria prestatzeko. Unibertsitatearen ordezkari bezala, Juan Jose Larrea, Juan Ramon Murua eta Lander Sarasola errektoreordeak izan dira eta, Euskaltzaindiaren ordezkari, Jean Haritschelhar, Xabier Kintana eta Juan Jose Zearreta.



Egoitzan, 2002-XI-8an, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmeneko Jarraipen Batzordearen bilera; ezkerretik eskuinera: Juan Jose Larrea, Jose Luis Lizundia eta Xabier Kintana.

Azaroaren 8an, egoitzan, Jarraipen Batzordea bildu da. Gai nagusia 2003ko hitzarmena izan da. Euskal Herriko Unibertsitatetik Jose Ramon Murua eta Juan Jose Larrea izan dira eta Euskaltzainditik, Jean Haritschelhar, Jose Luis Lizundia, Xabier Kintana eta Juan Jose Zearreta, Jose Antonio Aranaren ordezkariak.

Abenduaren 19an, egoitzan, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak 2002. urteari dagokion eranskina sinatu dute. EHUren izenean, Manuel Montero errektoreak eta Akademiarenean, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak.

V.6.2. DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

Euskaltzaindiak eta Deustuko Unibertsitateak 2001eko abenduaren 20an sinatu zuten Hitzarmenaren barruan, Kardaberazen III. Mendeurrenerako ekitaldiak prestatzeko, bi batzorde hauek eratu dira:

Batzorde Akademikoa:

- Euskaltzaindiaren izenean: Patxi Altuna, Juan Mari Lekuona, Andres Urrutia eta Ana Toledo.
- Deustuko Unibertsitatearen izenean: Josu Bijueska, Elixabete Perez Gaztelu, Esther Zulakia eta Itziar Turrez.

Antolaketa Batzordea:

- Euskaltzaindiaren izenean: Jose Antonio Arana Martija eta Jose Luis Lizundia.
- Deustuko Unibertsitatearen izenean: Rosa Miren Pagola eta Jose Luis Zinkunegi.

Zenbait bilera egin dute batzorde hauek, 2003an ospatzekoa den Kardaberazen III. Mendeurreneko ekitaldiak prestatzeko.

V.7. BAIONAKO IKER TALDEA

Euskaltzaindiak eta *Iker* taldeak hitzarmena sinatua dute, 2001etik, eta lau urteko iraupena du; beraz, hau da bigarren urtea.

Iker taldea hiru erakunde hauek osatzen dute:

- Centre National de la Recherche Scientifique (CNRS).
- Bordeleko III. Unibertsitatea / Université Michel de Montaigne.
- Université de Pau et des Pays de l'Adour

V.8. EROSKI

EROSKI Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarren arteko hitzarmena sinatua dute JAGONET zerbitzua babesteko. Hiru urteko iraupena duen hitzarmen hori 2000. urtean sinatu zen eta beraz, hauxe da hirugarren urtea.

V.9. EUSKALTEL

Martxoaren 8an, Jose Antonio Ardanza Euskaltel enpresako buruak buruak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak urtebeterako hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horren bidez Euskaltelek JAGONET zerbitzuarentzako diru-laguntza ematen dio Euskaltzaindiari, eta Egungo Euskararen Bilketa Lan Sistematikoko (EEBSko) datutegia dohainik dauka bere ordenagailuetan, horren kostua bere gain hartuz.



Zamudion, 2002-III-8an, Euskaltel-en egoitzan, Euskaltel-en eta Euskaltzaindiaren arteko lehen hitzarmena sinatzen; ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar eta Jose Antonio Ardanza.

Ekitaldi berean, EEBSren aurkezpena egin da. Hitzarmenari buruzko azalpenak Ardanzak, Haritschelharrek eta Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzaileak eman dituzte. UZEIren izenean, Alberto Agirreazaldegikudeatzaileak, 1987tik gaur arte UZEIk egin duen EEBSren nondik-norakoak azaldu ditu eta Miriam Urkia XX. Mendeko euskararen corpus estatistikoaz mintzatu da. Azkenik, Jose Ramon Zubimendi JAGONETeko arduradunak, zerbitzu horren ezaugarriak azaldu ditu.

**VI. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia /
Organigrama y directorio de Euskaltzaindia /
Organigramme et répertoire d'Euskaltzaindia:**

**VI.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak /
Relación de académicos y cargos /
Académiciens et responsables**

**VI.2. Batzordeen zerrendak /
Comisiones académicas /
Commissions académiques**

**VI.3. Euskaltzaindiaren organigrama /
Organigrama de la Real Academia de la Lengua
Vasca / Euskaltzaindia /
Organigramme d'Euskaltzaindia**

**VI.4. Aurkitegia /
Directorio /
Répertoire**

VI.1. EUSKALTZAINEN ETA KARGUDUNEN ZERRENDAK / RELACION DE ACADÉMICOS Y CARGOS / ACADÉMICIENS ET RESPONSABLES

EUSKALTZAIN OSOAK / ACADÉMICOS DE NÚMERO / ACADÉMICIENS TITULAIRES

Patxi Altuna	Emile Larre
Jose Antonio Arana Martija	Juan Mari Lekuona
Miren Azkarate	Beñat Oihartzabal
Pierre Charritton	Patxi Ondarra
Jean-Louis Davant	Txomin Peillen
Xabier Diharce "Iratzeder"	Pello Salaburu
Andolin Eguzkitza	Juan San Martin
Patxi Goenaga	Ibon Sarasola
Jean Haritschelhar	Jose Mari Satrustegi (†)
Andres Iñigo	Andres Urrutia
Xabier Kintana	Patxi Zabaleta
Henrike Knörr	Antonio Zavala



Laudion, 2002-XII-20an, euskaltzainak osoko bilkura egunean / Llodio, 20-XII-2002, académicos en la sesión plenaria / Le 20-XII-2002 à Llodio, les académiciens en séance plénière.

Behean, ezkerretik eskuinera / Abajo de izquierda a derecha / En bas de gauche à droite : Jean-Louis Davant, Henrike Knörr, Patxi Ondarra, Jose Mari Satrustegi (†), Jean Haritschelhar, Piarres Charritton, Juan Mari Lekuna.

Goian, ezkerretik eskuinera / Arriba de izquierda a derecha / En haut de gauche à droite : Emile Larre, Andres Iñigo, Andres Urrutia, Andolin Eguzkitza, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Xabier Kintana.

ZUZENDARITZA / JUNTA DE GOBIERNO / COMITÉ DE DIRECTION

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua / Presidente / Président
Henrike Knörr, buruordea / Vicepresidente / Vice-président
Xabier Kintana, idazkaria / Secretario / Secrétaire
Jose Antonio Arana Martija, diruzaina / Tesorero / Trésorier
Beñat Oihartzabal, *Iker* sailburua / Director de la Sección de Investigación /
Directeur de la Section Recherche
Andres Urrutia, *Jagon* sailburua / Director de la Sección Tutelar / Directeur de la
Section Sauvegarde

* * *

ORDEZKARIAK / DELEGADOS / DÉLÉGUÉS

Gipuzkoa: *Juan Mari Lekuona*
Araba / Álava: *Hernike Knörr*
Nafarroa / Navarra / Navarre: *Andres Iñigo*
Iparraldea / Pays Basque Nord: *Pierre Charritton*

* * *

ERAGILEAK / GESTORES / RESPONSABLES

Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea / Vicesecretario-gerente / Secrétaire
adjoint et gérant
Juan Jose Zearreta, ekonomi eragilea / Gestor económico / Responsable économi-
que
Prudentzio Gartzia, Azkue Bibliotekako zuzendaria / Director de la Biblioteca Azkue
/ Directeur de la Bibliothèque Azkue
Ricardo Badiola Uriarte, argitalpen eragilea / Gestor de publicaciones /
Responsable des publications
Pello Telleria, eragile teknikaria / Gestor técnico / Responsable technique

VI.2. BATZORDEEN ZERRENDAK / COMISIONES ACADÉMICAS / COMMISSIONS ACADÉMIQUES¹

IKER SAILA / SECCIÓN DE INVESTIGACIÓN / SECTION DE RECHERCHE

Iker sailburua / Director / Directeur: Beñat Oihartzabal

I. HIZTEGIGINTZA batzordea / Comisión de LEXICOGRAFÍA / Commission du LEXICOGRAPHIE

Burua / Presidente / Président: Ibon Sarasola

Batzorde hau bi azpibatxordetan banatzen da / Esta comisión se divide en dos subcomisiones / Cette commission se divise en deux sous-commissions:

I.1. Orotariko Euskal Hiztegiaren (OEH) lantaldea / Equipo de trabajo del Diccionario General Vasco (OEH) / Groupe de travail du Dictionnaire Basque Général

Arduraduna / Responsable: Iñaki Segurola

Kideak / Miembros / Membres: Arantza Egia, Ainara Estarrona, Gabriel Fraile, Elizabet Kruzeta, Ane Loidi, Amaia Olabarria, Ainhoa Otamendi.

I.2. Hiztegi Batuko lantaldea / Equipo de trabajo del Vocabulario Unificado / Groupe de travail du Dictionnaire Unifié

Arduraduna / Responsable: Jose Antonio Aduriz

Kideak / Miembros / Membres: Luis Baraiazarra, Jean-Louis Davant, Koro Navarro, Paskual Rekalde, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Miriam Urkia, Xarles Videgain.

II. GRAMATIKA batzordea / Comisión de GRAMÁTICA / Commission de GRAMMAIRE

Burua / Presidente / Président: Patxi Altuna

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Jesus Mari Makatzaga

Kideak / Miembros / Membres: Iñaki Amundarain, Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Pierre Charriton, Andolin Eguzkitza, Juan Garzia, Patxi Goenaga, Nora Iriarte, Alan King, Itziar Laka, Jose Mari Larrarte, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Patxi Ondarra, Paskual Rekalde, Karmele Rotaetxe, Pello Salaburu.

¹ Izendapen hauek (2003-III-28) 2003 eta 2004rako dira / Estos nombramientos son para el bienio 2003-2004 / Ces nominations concernent les années 2003 et 2004.

III. DIALEKTOLOGIA batzordea / Comisión de DIALECTOLOGÍA / Commission de DIALECTOLOGIE

Burua / Presidente / Président: Andolin Eguzkitza

Atlasgintza lantaldea / Equipo de trabajo del Atlas Lingüístico / Groupe de travail de l'Atlas Linguistique

Arduradunak / Responsables: Gotzon Aurrekoetxea, Xarles Videgain

Kideak / Miembros / Membres: Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Juan Antonio Letamendia, Koro Seguroa.

IV. ONOMASTIKA batzordea / Comisión de ONOMÁSTICA / Commission d'ONOMASTIQUE

Burua / Presidente / Président: Andres Iñigo

Idazkari / Secretario / Secrétaire: Mikel Gorrotxategi

Kideak / Miembros / Membres: Patxi Galé, Henrike Knörr, Jose Luis Lizundia, Txomin Peillen, Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan San Martin, Amaia Usabiaga.

Exonomastika / Exonomástica / Exonomastique

Arduraduna / Responsable: Andolin Eguzkitza

Kideak / Miembros / Membres: Gidor Bilbao, Andolin Eguzkitza, Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana.

Aholkulariak / Asesores / Conseillers

Jean-Louis Davant, Jose Antonio González Salazar, Hector Iglesias, Elena Martínez de Madina, Felix Mugurutza, Patxi Ondarra, Jean-Baptiste Orpustan, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Bernardette Soulé, Patxi Uribarren.

V. LITERATURA batzordea / Comisión de LITERATURA / Commission de LITTÉRATURE

Burua / Presidente / Président: Juan Mari Lekuona

V.1. Herri Literatura azpibatzerdea / Subcomisión de Literatura Popular / Sous-commission de Littérature populaire

Arduraduna / Responsable: Juan Mari Lekuona

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Pello Esnal

Kideak / Miembros / Membres: Jose Mari Aranalde, Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Jose Mari Iriondo, Jabier Kaltzakorta, Emile Larre, Abel Muniategi, Antonio Zavala, Joxe Ramon Zubimendi.

V.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea / Subcomisión de Investigación Literaria / Sous-commission de Recherche littéraire

Arduraduna / Responsable / Responsable: Juan Mari Lekuona

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Lourdes Otaegi

Kideak / Miembros / Membres: Xabier Altzibar, Ur Apalategi, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jon Casenave, Iratxe Gutierrez, Jean Haritschelhar, Juan Cruz Igerabide, Jon Kortazar, Maria Jose Olaziregi, Karlos Otegi, Txomin Peillen, Ana Toledo, Patri Urkizu.

**VI. EUSKARA BATUKO batzordea / Comisión de EUSKERA UNIFICADO /
Commission de BASQUE UNIFIÉ**

Burua / Presidente / Président: Pello Salaburu

Idazkaria / Secretaria / Secrétaire: Miren Azkarate

Kideak / Miembros / Membres: Patxi Altuna, Andolin Eguzkitza, Xabier Kintana,
Henrike Knörr, Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola.

VII. JAGON SAILA / SECCIÓN TUTELAR / SECTION DE SAUVEGARDE

Jagon sailburua / Director / Directeur: Andres Urrutia

VII.1. Corpus batzordea / Comisión del Corpus / Commission du Corpus

Burua / Presidente / Président: Andres Urrutia

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Joxe Ramon Zubimendi

Kideak / Miembros / Membres: Dionisio Amundarain, Joseba Butron, Pello Esnal, Igone
Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo, Xabier Mendiguren, Paskual
Rekalde.

**Euskalkien lantaldea / Grupo de Trabajo de los Dialectos / Groupe de tra-
vail des Dialectes:**

Arduraduna / Responsable: Paskual Rekalde

Kideak / Miembros / Membres: Kaxildo Alkorta, Jon Aurre, Juan Luis Goikoetxea, Patxi
Iñigo, Iraide Iturri, Manu Ormazabal, Alazne Petuya.

**VII.2. Sustapen batzordea / Comisión de Promoción / Commission de
Promotion**

Burua / Presidente / Président: Andres Urrutia

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Andres Iñigo

Kideak / Miembros / Membres: Erramun Baxok, Pierre Charritton, Aingeru Epaltza,
Henrike Knörr, Juan Mari Lekuona, Erramun Osa, Manuel Maria Ruiz
Urrestarazu.

Aholkulariak / Asesores / Conseillers: Juan San Martin, Jose Luis Lizundia.

* * *

**EGITURAZKO BATZORDEAK / COMISIONES ESTRUCTURALES / COMMISSIONS
STRUCTURELLES**

**VIII. ARGITALPEN batzordea / Comisión de PUBLICACIONES / Commission des
PUBLICATIONS**

Burua / Presidente / Président: Jean Haritschelhar

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Ricardo Badiola Uriarte

Kideak / Miembros / Membres: Henrike Knörr, Jose Antonio Arana Martija, Beñat
Oihartzabal, Andres Urrutia, Andolin Eguzkitza, Pello Salaburu.

**IX. AZKUE BIBLIOTEKA batzordea / Comisión BIBLIOTECA AZKUE / Commission
de la BIBLIOTHÈQUE AZKUE**

Burua / Presidente / Président: Jose Antonio Arana Martija

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Prudentzio Gartzia

Kideak / Miembros / Membres: Kepa Altonaga, Gidor Bilbao, Andolin Eguzkitza, Agurtzane Juanena, Jose Mari Larrarte, Gerardo Luzuriaga, Juan San Martin.

Aholkulariak / Asesores / Conseillers: Joseba Agirreazkuenaga, Henrike Knörr.

X. LEGE-EKONOMIA batzordea / Comisión ECONÓMICO-JURÍDICA / Commission ÉCONOMICO-JURIDIQUE

X.1. Lege azpibatzerdea / Subcomisión jurídica / Sous-commission juridique

Burua / Presidente / Président: Andres Urrutia

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Jose Luis Lizundia

Kideak / Miembros / Membres: Jose Antonio Arana Martija, Jon Artatxo, Abel Muniategi, Patxi Zabaleta.

X.2. Ekonomia azpibatzerdea / Subcomisión económica / Sous-commission économique


Burua / Presidente / Président: Jose Antonio Arana Martija

Idazkaria / Secretario / Secrétaire: Juan Jose Zearreta

Kideak / Miembros / Membres: Xabier Erdozia, Sebastian Garcia Trujillo, Juan Luis Laskurain, Jose Maria Makua Goienetxe.

**VI.3. EUSKALTZAINDIAREN ORGANIGRAMA /
ORGANIGRAMA DE EUSKALTZAINDIA /
ORGANIGRAMME D'EUSKALTZAINDIA**

E U S K A L T



Z A I N D I A

MELE PLÉNIÈRE

GOBIERNO / DIRECTION

NO-GERENTE / SECRÉTAIRE ADJOINT GÉRANT

1

SAILBURUAK / DIRECTORES DE SECCIÓN / DIRECTEURS DE SECTION

EKONOMI ERAGILEA /
GESTOR ECONÓMICO /
RESPONSABLE ÉCONOMIQUE

1

ERAGILE TEKNIKARIA / GESTOR TÉCNICO / RESPONSABLE TECHNIQUE

BATZORDEAK / COMISIONES / COMMISSIONS

ARGITALPEN ERAGILEA /
GESTOR DE PUBLICACIONES /
RESPONSABLE DE PUBLICATIONS

1

HIZTEGIA /
DICCIONARIO /
DICTIONNAIRE

HIZKUNTZ ATLASA /
ATLAS LINGÜÍSTICO /
ATLAS LINGUISTIQUE

BESTE BATZORDEAK /
OTRAS COMISIONES /
AUTRES COMMISSIONS

KATALOGATZAILEA /
CATALOGADORA /
RESPONSABLE DE CATALOGUE

1

ZUZENDARIA /
DIRECTOR /
DIRECTEUR

1

ZUZENDARI TEKNIKOAK /
DIRECTORES TÉCNICOS /
DIRECTEUR TECHNIQUE

2

TEKNIKARIAK /
TÉCNICOS /
TECHNICIENS

8

TEKNIKARIAK /
TÉCNICOS /
TECHNICIENS

2

TEKNIKARIAK /
TÉCNICOS /
TECHNICIENS

3

SALMENTA ARDURADUNA /
RESPONSABLE DE VENTAS /
RESPONSABLE DE VENTES

1

ADMINISTRARIA /
ADMINISTRATIVA

1

GARBITZAILEA /
LIMPIADORA /
FEMME DE MÉNAGE

1

VI.4. HELBIDEAK / DIRECTORIO / RÉPERTOIRE

EGOITZA / SEDE / SIÈGE

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 81 55
Faxa / Fax: (00-34) 94 415 81 44
E-mail: info@euskaltzaindia.net
Http://www.euskaltzaindia.net
Kudeatzailea / Gerente / Gérant: Jose Luis Lizundia

AZKUE BIBLIOTEKA / BIBLIOTECA AZKUE / BIBLIOTHÈQUE AZKUE
Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf.: (00-34) 94 415 27 45
Faxa / Fax: (00-34) 94 415 81 44
E-mail: azkuebib@euskaltzaindia.net
Zuzendaria / Director / Directeur: Pruden Gartzia

GORDAILUA / ALMACÉN / DÉPÔT
Bilbo-Donostia errepidea, z.g. - 4,5 km
Kukullaga-SAGA eraikuntza, 1. solairua
48450 ETXEBARRI (Bizkaia)
Telf.: (00-34) 94 440 62 58
E-mail: jartza@euskaltzaindia.net
Arduraduna / Responsable: Jon Artza

ORDEZKARITZAK / DELEGACIONES / DÉLÉGATIONS

ARABA / ÁLAVA

San Antonio, 41
01005 VITORIA / GASTEIZ
Telf.: (00-34) 945 23 36 48
Faxa / Fax: (00-34) 945 23 39 40
E-mail: gasteizordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria / Delegado / Délégue: Henrike Knörr

GIPUZKOA / GUIPÚZCOA

Hernani, 15
20004 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
Telf.: (00-34) 943 42 80 50
Faxa / Fax: (00-34) 943 42 83 65
E-mail: donostiaordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria / Delegado / Délégue: Juan Mari Lekuona

NAFARROA / NAVARRA / NAVARRE

Conde Oliveto, 2, 2. eskuin
31002 IRUÑEA / PAMPLONA
Telf.: (00-34) 948 22 34 71
Faxa / Fax: (00-34) 948 21 07 13
E-mail: nafordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria / Delegado / Délégue: Andres Iñigo

IPARRALDEA / PAYS BASQUE NORD

Thiers, 18. 1
64100 BAIONA / BAYONNE
Telf.: (00 33) (0) 559 25 64 26
Faxa / Fax: (00 33) (0) 559 59 45 59
E-mail: baionaordez@euskaltzaindia.net
Ordezkarria / Delegado / Délégue: Pierre Charritton

